

# ESKUALDUN KANTARIA

---

Bat da gure izarra,  
Bat da gure bandera,  
Erran dezagun « Bethi denak bat »  
Izan nahi dugula.

ESKUALDUN SOLDADO GAZTERI

Zembeit Kantu ezagutuenak

*bihotzean atchik dezaten bethi  
gure eskuara ederraren eta  
Eskual - Herri maitearen  
amodica.*

Dr A. GOYENECHE.



H-67375

ATV

F-71301

29488

# ESKUALDUN KANTARIA



## I

### GUERNIKAKO ARBOLA

1

Guernikako arbola  
Da bedesmkatuba.  
Euskaldunen artean  
Guztiz maitatuba :  
Eman ta zabalzazu  
Munduban frutuba ;  
Adoratzen zaitugu,  
Arbola santuba.

2

Mila urthe inguru da  
Ezaten dutela  
Jainkoak jarri zubela  
Guernikan arbola :  
Zaudetada zutikan  
Orain da dembora.  
Eroritzen bazera  
Arras galdu gera.

3

Etzera eroriko  
Arbola maitea  
Baldin portatzen bada  
Vizkaiko juntia :  
Laurok artuko degu  
Zurekin partia,  
Pakian bizi dedin  
Euskaldun jendia,

4

Betiko bizi dedin  
Jaunari ezkatzeko  
Jarri gaitezen danak  
Laster belauniko :  
Eta bihotzetikan  
Eskatu ez gero  
Arbola biziko da  
Orain eta gero,

5

Arbola botatzia  
Dutela pentsatu,  
Euskal herri guztiyan  
Denak badakigu :  
Ez bada jendia  
Dembora orain degu,  
Erori gabetanik  
Iruki biagu.

6

Bethi egongo zera  
Uda berrikua  
Lore aintziñetako  
Mancha gabekoa :  
Erruzaitez bada  
Bihotz gurekoa,  
Dembora galdu gabe  
Emanik frutuba.

7

Arbolak erantzun du  
Kontuz bizitzeko,  
Eta bihotzetikan  
Jaunari eskatzeko :  
Gerrarik nai ez dugu  
Pakea bethiko  
Gure lege zuzenak  
Emen maitatzeko.

8

Erregutu diogun  
Jaungoiko Jaunari

Pakea emateko  
Orain eta bethi :  
Bai eta indarrare  
Zedorren Iurrari  
Eta bendiziyoa  
Euskal-herriyari.

9

Orain kanta ditzagun  
Laubat bertzo berri  
Gure probintziaren  
Alabantzagarri :  
Alabak esaten du  
Su garrez betherik  
Nere bihotzekua  
Eutziko diat nik.

10

Guipuzkoa urrena  
Arras sentiturik  
Asi da deadarrez  
Ama Guernikari :  
Ethorri etzeitzen  
Arrimatu neri  
Zure zendogarriya  
Emen nakazu ni.

11

Ostoia berdia eta  
Zaiñak ere fresko,  
Nere seme maiteak  
Ez naiz eroriko :  
Beartzen banaiz ere

Egon bethi pronto  
Nigandikan etsaiak  
Itzuzerazoko.

12

Gutiz maitagarria  
Eta oestarguiña

Begiratu gaitzatzu  
Zeruko erregiña  
Gerrarik gabetanik  
Bizi albagiña.

Oraindaño izan degu  
Guretzako diña.

---

II

**NERE MAITIARENTZAT**

1

Ume eder bat ikhusi nuben  
Donostiako kalean.  
Itz erdichko bat ari esangabe,  
Nola pasatu parean?  
Gorphutza zuan liraña  
Eta oñak zebilzan airean  
Politagorik ez det ikusi  
Nere begien aurrean.

2

Aingeru zuri paregabea  
Euskal-herriko alaba  
Usterik gabe zuganat bethi  
Nere bihotzak narama:  
Ikhusi nayan bethi ornabill,  
Nere maitea au lana!  
Zoraturikan emen naukazu  
Bethi pensatzen zugana.

Galai gazteak galdetzen dute  
Aingeru ori nundago  
Nere maitea nola deitzen dan  
Ezdu iñorchok jakingo  
EZ berak ere ezeluke naiko  
Konfiantza orretan nago  
Amorio dun bihotz oberik  
Euskal-herrian ez dago.

---

III

**KONTCHECHI**

1

Maite bat maitatzen det maitagarria  
Begi ederra du ta guziz argia  
Daukat urruti  
Bañan ezin khendu det burutik  
Arren itchura.  
Saldu albaliteke pisura  
Urrearen truke  
Nork erosi faltako ez luke? Nork, etc.

2

Oguei ta lau leguaz nago aparte,  
Bitartean badauzkatz milloi bat ate  
Guztiak ichtirik  
Nai arren ezin egon isillik  
Bethi nigarrez  
Nere maite maitearen galdez.

Otedan bizi

Bihotz bihotz nereko Kontchechi. Bihotz, etc.

3

Egunaz argi gutchi, gauean illun,  
Kontsuelorik ez da neretzat iñun

Maitea gabe

Egin otenadin aren jabe

Orhoitutzean

Zembait pena nere bihotzean

Ditut igaro

Maite det eta ez da milagro. Maite, etc.

4

Ay au bakardadea eta tristura!

Nere biotz gajoa ezin piztuda

Ain dago illa

Bethi dabil kontsuelo billa

Bere artean

Banengo maitearen aldean

Orducho biko

Pena guztiak lirake illko. Pena, etc.

5

Nere maitea zutaz ni orhoitzen naiz

Egunaz ere baita gauetan chit maiz

Lotan ere bai,

Zu ikhusitzera nik joan nai

Libre banengo

Or nitzake egun bigarrengo.

Naiz orduan ill

Ez nuke izango batere min. Ez, etc.

Lehengo gau batean egin det amets  
Bañan pentsamentuak bethi alrebes

Irteten dira,

Ustez nengoan zuri begira

Maite polita

Kofrearen gañean jarrita

Kontu kontari.

Naiz nuen baña ez nintzan ari. Naiz, etc.

Maite nerea daukat bethi gogoan,  
Ay! orain banengo ni aren alboan

Iñoz bezala,

Jaunak amets au kompli dezala

Balitz kombeni

Kontsueloz illko nintzake ni

Nere ustean

Maitecho bihotza ikhustean. Maitecho, etc.

Nere maite polita ez da zer etsi,  
Bigar ez bada ere or nazu etzi

Lengo lekuau,

Allegatutzen naizan orduan

Ay ura paza

Nere maite maitecho bihotza,

Zuri begira

Pena gaztiak aztuko dira. Pena, etc.

Zure gauza polit bat oidet nerekin,  
Izkibaturik dago letra birekin,

C. ta B. dira,  
Askotan nago oei begira  
Ain dira piñak!  
Maitecho polita zuk egiñak  
Sedaz ederki  
Kolkoan gorderik daukat bethi. Kolkoan, etc.

10

Esperantzetan bizi maite gozoa  
Noizbait komplituko da gure plazoa  
Eta orduan  
Gauza charrik ez artu buruan,  
Lengoai utzi,  
Ez degu pasatzen pena gutchi  
Preso sei urtez.  
Onduko gaituzte nere ustez. Onduko, etc.

---

IV

## ESKUALDUNA

1

Eskualdun seme dena bedi alegera  
Ikhusi dut betbetan (oi zen den ederra!)  
Ez ametsetan (*bis*), nintzen atzarria  
Arbola bat harrokan ederki jarria.

2

Zer haiz bada, arbola? orai mintza hadi,  
**Harrokatik** begira hagoena guri  
— Ni nauk Eskualdun (*bis*), bai aspaldikoa  
Egundaiño haizkorak ezin hautsizkoa.

3

Nahi duenak jakin noizkoa ni naizen  
Bilha beza harrokan erroak non diren.  
Baliatu zait (*bis*), barnasko baitziren,  
Orai bertzenaz bizi ez nintzan izanen.

4

Ikhusi-tut armadak heldu Erromatik.  
Ene hosto ederra handik ikhusirik.  
Athera nahi (*bis*), ninduten errotik;  
Ezin khendu nautatzen zembeit adar baizik.

5

Pikatu badarautet nombaitik adarra,  
Azpian atzeman-tu, entzun dut nigarra :  
« Eskualdunaren (*bis*), adarren dorphea !  
« Zerk nauk ekharrarazi ni heien azpira ! »

6

Doidoia ene minak zoazin sendatzera,  
Huna non agertzen den Erdaldun jendea  
Ibaika ikhusten dut (*bis*), ene hondatzera  
Guti zakien zer zen Eskualdun arbola !

7

Heldu zaizkit gainera tirainak borthitzik.  
Berekilan ni nahiz eraman hemendik.  
Bai iharrosi (*bis*), bainan nago chutik;  
Gan ziren eta nago errege bakharrik !

8

Bakean nagoela orduz geroztikan  
Amesten duk menturaz, haurra, hire baith an.

Etsai handia (*bis*), etsai bakharra munduan Kar-Ni ere nahiko nau garhaitu guduan. [loman

9

Karlomanen kapitain, Errolan handia,  
Harek zuen beretu ja mundu guzia.  
Bethor Karloman (*bis*), bethor Errolan, ez naiz  
Dugun ikhus norena daiteken hauzia. [aurdikia

10

Turruta soinuz huna non tudan guziak.  
Izitzen dituztela hegastinak berak.  
Zaldi zuriak, zaldi gorriak, zer gizon hazkarra?  
Nola detzazke garhait Eskualdun arbolak?

11

Haizkorez harmatuak, denak lotzen zaizkit;  
Bertzen ezin-bertzean, Errolan azkenik.  
Lotzen zait bainan (*bis*), etzuen ahalik  
Jo nuen errekara harroken gainetik.

12

Huna orai non naizen, orai lehengoa;  
Lorerik ez dut bainan sendo dut erroa.  
Ez naiz ihartu, ez ihartuko, segur dut bizia,  
Ez badautet azpian zilhatzen mendia?

13

Eskualdunak, geroztik gaiten alegra!  
Kanta berria dugun denek kanta gora :  
Biba Eskualdun (*bis*), arraza hazkarra!  
Biba mendi gainean Eskualdun arbola!

V

**INCHAUSPEKO ALABA**

1

Inchauspeko alaba dendaria  
Goizian goiz jostera joailia  
Nigarretan pasatzen du bidia  
Aprendiza kontsolatzailia.

2

Zelian den izarrik ederrena  
Jin balekit argi egitera  
Juan naite maitiaren ikhustera  
Ene penen hari erraitea.

3

Mundu huntan penarik gabetarik  
Bizitzeko nik eztut lanjerik;  
Maithatu dut ukhanen eztudana,  
Horrek beitereit bihotzian pena.

4

Maithatu duzia ukhanen eztuzuna,  
Horrek dereizia bihotzian pena?  
Maith'ezazu ukhan diokezuna  
Eta juanen da zure bihotz mina.

5

Mertchikaren floriaren ederra!  
Barnian dizu hechurra gogorra;  
Gaztia niz, bai eta loriusa,  
Eztizut galtzen zure esperantcha.

Adios beraz, ene maitia, adios!  
Adios dereizut orai sekulakotz;  
Ezkunt zite plazer duzunareki,  
Eta begira ene arrakuntruti?

Zer izanen da zure arrakuntria?  
Zer ahal da zure egin ahala?  
Zerbait khasu nitan gerthatzen bada  
Sujet berri bat zutan izanen da.

---

VI

**CHARMAGARRIA ZERA**

1

Charmagarria zera  
Eder eta gazte  
Nere bihotzak ez du  
Zu besterik maite.  
Beste zembait bezela  
Banegoge libre  
Zurekin ezkontzea  
Dudarik ez nuke.

2

Maitea jaiki jaiki  
Plazer duzunean  
Iñork ikhusi gabe  
Iluna-barrean

Lagun bat emango di-  
Joateko bidean [zut  
Arrek jarriko zaitu  
Trankil bihotzean.

3

Maitea churi zera  
Elurra bezala  
Bai eta mintzo zera  
Profeta bezala  
Orain dainokoan ere  
Badira sobera  
Baldin plazer baduzu  
Atozkit aldera.

VII

**AGUR NERE HERRIARI**

1

Urrundik ikhusten dut, ikhusten mendia.  
Zeinaren gibelean baitut nik herria;  
Jadanik dut aditzen (zorion handia!)  
Ezkila maitearen hasperen eztia.

2 •

Ezkila, zer othe duk hik egun erraten?  
Urrunera zer berri othe duk igortzen?  
Mendiek hedoipetik dautek ihardesten,  
Hik errana zerura ditek helarazten.

3

Landako langilea, artzain mendikoa,  
Ithurriko bidean dohan neskatoa,  
Aditurik, ezkila, hire boz lañoa,  
Othoizten hasi dituk ama zerukoia.

4

Nik ere dut othoizten Birjina Maria,  
Basherrietan galdu haurren gidaria;  
Neretzat othoi dezan ardiets grazia  
Bakean kausitzeko nik egun herria.

5

Mendiak utzi ditut urrun gibelean  
Herria dut ikhusten jadanik aldean

Zer duk, ene bihotza, saltoka barnean?  
Othe duk huts-eginen herrira heltzean?

6

Agur, agur, herria! agur, sor-lekhua!  
Agur, nere haurreko lekhu maitatua!  
Jainkoak aditurik haur baten oihua.  
Hire gana duk haur bat egun hurbildua.

7

Mendiaren hegitik hartuz zeiherrera,  
Iduri chingola bat, aldapa behera,  
Bidechka, hi chuchen haiz jausten zelaiera;  
Chuchen ereman nezak ahaiden artera.

8

Bide hegiko haitza, zembatez haurrean,  
Igandetan meztatik etchera sartzean,  
Zembatez ez nauk jarri, amaren aldean,  
Hire adar lodieki egin itzalean!

9

Baratze gibileko elhorri churia,  
Bethi duk begiratzen haurreko tokia.  
Hik bezala zertako, aldaska garbia,  
Ez dut nik sor-lekhuan higatzen bizia?

10

Bainan nere hegitik nigar bat da jausten;  
Bozkarioak darot bihotza gainditzen  
Etchekoen boza dut jadanik aditzen  
Jainkoa, darozkitzut eskerrak bihurtzen!

VIII

SÉRÉNADE DE BELZUNCE

1

Ene izar maitea,  
Ene charmagarria,  
Ichilik zur'ikhustera  
Jin nitzauzu leihora;  
Koblatzen dudalarik  
Zaudet lokharturik,  
Gauazk'ametsa bezala  
Ene khantua zauzula!

3

Amodioa zer den  
Lehen ez nakien,  
Ez nagoke bizirik!  
Zuretako baizik!  
Norat den ichurkia  
Harat ithurria;  
Orobat ni, maitena  
Jiten niz zu-gana.

2

Zuk ez nuzu ezagutzen,  
Hori ere zaut gaitzitzen;  
Ez duzu ene beharrik;  
Ez eta acholarik:  
Hil edo bizi nadin  
Zuretako bardin  
Zu aldiz, maite Maria,  
Zu zare ene bizia!

3

Gaua dago garbirik  
Zerua eztirik:  
Han badira bi izar  
Urhe eta zilhar.  
Barraiatsen dutenak  
Elgarren lagunak.  
Ez dirade berechten  
Sekulan kitatzen.

---

IX

MAITE ZAITUT!

1

Zein den eder arra-  
Izar arte garbia [tsean

Ipharretik agertzean

Mariñelen argia?

Bai handizki eder dag o

Zeru zola handia!  
Zu miletan ederrago  
Nere maite Maria!

2

Izarvak dire, zeruko  
Aingeruen begiak  
Gizonen begiratzeko  
Jainkoak ezarriak;  
Zu bekhorat agertzean,  
Histuz beren argia,  
Sartzen dire ilhumpean  
Nere maite Maria.

3

Ez du hain lakhet izar-  
Egon lekhu berea [rak  
Primaderan ez erleak  
Baratzeko lorea,  
Ez du hala argi-albak  
Loriatzen choria  
Nola ni zu ikhustea  
Ene maite Maria.

4

Maria zure aldera  
Hurbildu bezein sarri

Maite zaitut, erratera  
Ez naiteke atrebi.  
Pilpira bat bihotzean  
Beldur bainaiz abia  
Maite zaitut erratean  
Nere maite Maria.

5

Balimbadut Jainkoaren  
Maithatzeko dretchoa  
Nola nik ez dut izanen  
Zure maithatzekoa?  
Zu zare nere bidean  
Jainkoak ezarria  
Ez samur nik erratean  
Maite zaitut Maria.

6

Maria, ni naiz mintzatu  
Orai zu mintza zaite  
Zuk ninauzun erradazu  
Nik zu bezala maite;  
Zu nerea, ni zurea,  
Higatzeko bizia  
Laiteke nere chedia  
Ene maite Maria.

---

X

**IKHAZKIN MENDIAN**

1

Gazterik hasi nuen gogoa alhatzen,  
Bakezko estatua zein othe zaiteken;  
Ez bainuen kausitzen egonez herrian,  
Hortako jarri nintzen ikhazkin mendian.

2

Urrikari nautenak dira enganatzen.  
Urrikalgarriago ditut ezagutzen.  
Bake osoa nun da hekien artian?  
Ni hartaz gozatzen naiz ikhazkin mendian.

3

Jaun onari diozkat eskerrak bihurtu.  
Lagun zoro hetarik bainau aldaratu.  
Beude beren atsegin galkorren erdian!  
Prestuki biziko naiz ikhazkin mendian.

4

Mendiko ur chirripak dohaz erasian;  
Chori, chocho, epherrek... kantatzen sasian;  
Urso ihiztariak arbolen gainian...  
Nola trista naiteke ikhazkin mendian.

5

Igandetan mezara menditik naiz jausten  
Jainkoaren manua hola ez dut hausten.

Egun hora gozatuz ahaiden erdian;  
Gero aste guzia ikhazkin mendian.

6

Zapetaín, sastre, harotz, zurgin eta hargin.  
Hek, hirian lanean igandearekin!  
Astelehena besta, gero min burian!  
Ni zuhur eta sano ikhazkin mendian.

7

Gizon gazte, lorios, merkhatukaria,  
Jan edan onen zale eta jokhairia,  
Ontasunak horrela goaten direnian,  
Erranen duk : Hobe zen ikhazkin mendian!

8

Ene anaia goan zen Amerikan barna;  
Laster zerbeit eginik uztekotan lana,  
Egun bezein aberats zen sorthu zenian!  
Hobe lukela dio ikhazkin mendian.

9

Lili arrosa hainitz bada bazterretan,  
Gazteen choragarri-herri guzietan;  
Ez naute enganatu ni orai artian;  
Lorerik gabe nago ikhazkin mendian.

10

Igande bestetan dut garbitzen larraua,  
Plazara naiz agertzen ongi aphaindua;  
Arrai dut arpegia, hitz onak mihian.  
Nork ezagut nagola ikhazkin mendian?

Osagarria banu zombeit urthez hola,  
Zahartzean utz niro mendiko etchola;  
Ene molsa luzea goritu denian,  
Zertako egonen naiz ikhazkin mendian!

---

XI

**AMA HAURRAREN SEASKAN LOHARKATZEN**

1

Lo! lo! nere maitea!  
Lo, ni naiz zurekin,  
Lo! lo! paregabea,  
Nigarrik ez egin;  
Goizegi da! munduko  
Gelditzen bazira,  
Nigarren urtatzeko  
Baduzu dembora.

2

Lo! nik zaitut higitzen;  
Lo! lo! nombait goza.  
Ez duzuia ezagutzen  
Amattoren boza?  
Etsai guzietarik  
Zure begiratzen  
Bertze lanak utzirik,  
Egonen naiz hemen.

3

Lo! lo! nere aingerua.

Bainan ametsetan  
Dabilkazu burua.  
Hirria ezpainenetan,  
Norekin othe zare?  
Non othe zabiltza?  
Ez urrun, ama gabe.  
Gan ene bihotza.

4

Lo! lo! zeruetarat  
Airatu bazare,  
Ez, bihur zu lurrerat  
Ardietsi gabe,  
Ongi zure alchatzeko  
Enetzat grazia;  
Guziz eni hortako  
Zait ezti bizia.

5

Lo! lo! gauak oraindik  
Nombait du eguna;  
Ez da nihon argirik

Baizik izarrena.	Laster nere besoetan
Izarrez mintzatzean,	Gozatuko zare.
Zutaz naiz orhoitzen :	7
Zein guti, zure aldean,	Bainan atzarri zare
Duten distiratzen !	Uso bat iduri;
6	Huna nik zembañ lore
Lo! lo! dembora dela	Zuretzat ekharri
Iduri zait albak	Ametsetan ait-amez
Histen hari tuela	Othe zare orhoitu?
Ekhi gabazkoak;	Ai! hirri maite batez
Choriak, arboletan,	Baietz erradazu.
Kantaz hasi dire;	

D<sup>r</sup> LARRALDE.

---

## XII

### KHILO EGILEAREN KANTUAK

1

Amikozeako Gilen khilo-egileak  
Etchetik khendu ditu bere langileak.

Sehi maiteak,  
Zeren galdu dituen irabazbideak.

2

Ez dezake nihon sal khilo, ardatza  
Nagusitu baitzaio galtz-erdi orratza,  
Moko zorrotza  
Ez da izertu nahi oraiko neskatcha.

3

Elhe biltzen dabila, galtchoina eskuan.  
Laneko gogorikan ez baitu buruan,  
Alfer moduan  
Oihal guti emanez khutcharen chokuan.

4

Gazte irule guti da Eskual-Herrian  
Bat ez dugu ikhusten khiloa gerrian  
Athe hegian  
Oi zer frendak horiek saltzeko ferian?

5

Oraino zembait bana hauzo herriean  
Iruten hari denik berant arratsetan,  
Bihotz minetan,  
Hobek ez lagunduz behar-orduetan.

6

Askotan altchatzen da amasoren boza,  
Bainan ilobak ez du hartu nahi ontsa,  
Lanerat lotsa!

Arrantze gabe nahi bailuke arrosa.

7

Amak goizean oihu : jaiki hadi, haurra;  
Ez-deia aski luze hiretako gaua?  
Har zan haintzurra,  
Itzuli beharra dun baratzeko lurra.

8

Alabak arrapostu ohetik gostura :  
Bego bihar artino haintzurtzeko lurra,

Arte laburra,  
Joan behar baitut goizik egun merkhatura.

9

Zuri galdatzen dautzut, izeba Maria,  
Lakhet-lekhu othe da gaztentzat hiria!

Hain da egia,  
Harat joaiteko badut hainitz gutizia.

10

Horra nola dabiltsan oraiko neskatchak  
Lur-lanetako dira sobera beratzak

Oi alfer hotzak!  
Akhabo eginen du laster laborantzak.

11

Neskatcha gazte dena itchuraz da abil;  
Esposatu berrian jaunarentzat umil:

Ondoan zarpil  
Galtzetako zilhoak erdirat ezin bil.

---

### XIII

## LIBERTATEAREN AMODIOA

Airea : *Guernikako arbola*

1

Eskualdun garbi batek, othe dauka deusik  
Libertatea bezain, gauza aberatsik?  
Ez, ez, harentzat ez deus, hain baliosik  
Zorion hortaz baizik ez baitu ametsik,  
Hori gabe ez duke bizitze urusik.

2

Munduko gaztelurik den ederrenean,  
Lausengu, jan-edan-on, guzien artean,  
Eskualduna ez dauke han, bertzen menean,  
Nahiago du izan librotasunean ;  
Mendian berak egin etchola batean.

3

Eskualdunak bakea du bethi galdatzen,  
Zeren libertatea gerlak dion khentzen ;  
Bertzenaz deusek ez du, nehon ikharatzen,  
Lehoin baten pare da, etsaier oldartzen,  
Buruzagiek dute, hortakotz maithatzen.

4

Orai bi milla urthe, hainitz Erromano  
Gerlan ethorri ziren, Eskual-Herriraino,  
Kantabre hazkar heiek, zioten oraino :  
Nahiago dugu hil, sumetitu baino !  
Hitz hori ez da galdu orai arteraino.

5

Eskualdunak zertan du, lachatzen gakhoa  
Harren libertatea dagon athekoa ?  
Botu bat duenean zerutikakoa.  
Hartan obeditzen du, humilki Jainkoia,  
Eta hartzen ordena bizi-guzikoa.

6

Libertate ederra gauza baliosa,  
Jainkoia zerbitzatuz, girichtino gisa,  
Igandeak begira, ahal bezain ontsa,  
Gero biba pilota, bleka eta musa,  
Hori da Eskualdunen bizițe urusa.

7

Libertatea khenduz othe da gai-denik?  
Eskualdunen bihotza, charma dezakenik?  
Ez da lorerik eta-ez landarerik,  
Guernikako arbola daitake bakharrik,  
Arbola saindu harek ez baitu parerik.

8

Eskualdunen artean, ez dugu aditu;  
Egiazko fedeaz ez denik argitu.  
Eskualdunak orotaz libro nahi baitu,  
Satanen bihurretik haurrean libratu  
Geroztik mamu harrek begietan gaitu.

9

Nere gudua huntan dut akhabatuko  
Biba libertatea Eskualdunendako,  
Jainkoa othoitztetik, ez naiz baratuko.  
Bakezko bizitzea diot galdatuko,  
Eta gero zerua eternitateko.

Pierre DIBARRART,  
*Baigorriko Chantrea.*

---

## XIV

### CHORIÑOA KAIOLAN

1

Zertako ni kaiolan,	Airetan ibiltzeko,
Zer eginik gaizki?	Jaunaren dohainak,
Ez othe dut bada izan	Eta ez preso egoteko,
Bihotz-miñik aski?	Ditut nik hegalak.

2

2

Behar bada nigarrez,  
Barur atzo danik,  
Ene haurrak ni galdez  
Daude goseturik,  
Laster helarazteko  
Idek beraz bortak!  
Maiz heien bazkatzeko  
Dituk nik hegalak.

5

Iragan arratsean,  
Egin dut nik amets  
(Eta umez dohanean,  
Amak zer ez sinhets!)  
Ohatzetik hurbilchko  
Zabiltzala etsaiak  
Ah! Ianjera aitzintze  
Ditut nik hegalak.

3

Primaderak, oraindik,  
Senti du negua  
Eta ume bat bakharrik  
Daukat lumatua;  
Bertzek ez pairatzeko,  
Onhets nere othoitzak!  
Hekien berotze  
Dituk nik hegalak.

6

Baiña berantegi den  
Nago beldurturik,  
Nihon ez aditzen  
Auben miñik baizik;  
Ez, ezta dudatzeko,  
Galdu ditut haurrak!  
Orai, nik deusetako  
Ez ditut hegalak.

4

Alhargun bat naizela  
Ez dautzuet erran,  
Helas! hil zitzaitala  
Laguna segadan!  
Harren miña arintze-  
Eta eginbideak [ko,  
Bienak bethetzeko  
Ditut nik hegalak.

7

Doluz errebel, Jauna  
Hasi naiz mintzatzen  
Bai, nere azken orena  
Hari da hurbiltzen;  
Zerurat airatzeko,  
Umentzat alferrak!  
Zaizkit baliatuko  
Agian hegalak.

Dr LARRALDE.

XV

**DESERTURRA**

Airea : *Gizon zuhurra*

Biziaren primaderan harmetara joaitea  
Zorigaitzik dorpheena zitzautan jasaitea  
Desertatuz uste nuen hobeki izaitea;  
Pentsamendu zoroa, hik egin naukan kaltea?

Buru-kolpe itsua, hik egun batzuen gatik  
Sekulako zertako nauk galarazi herritik,  
Aita ama haurrid'eta adichkiden artetik  
Gehiago othe naitek ikhusiren bizirik.

Gaizkirik den gutiena egin gabe nihauri,  
Gaichtaginik handiena naizela dut iduri.  
Zer malhura, gehiago etzautala zilhegi  
Agur baten erraitea nere sor-lekuari!

Nere baithan gozo onik orai ez da sekulan,  
Bihotzeko har batekin izpiritua alhan,  
Ametsetan ere bethi mugarrien ikharan,  
Bethi beldur aintzinagi zangoa sar dezadan.

Gauaz eta egunaz dut begien aintzinean.  
Sor-etchola nere hora larrain bichkar batean.  
Bichta-bichtan hantche dago ithurri bat aldean,  
Oh! nik nuen zoriona han bizi nintzenean.

Non zaituztet, mendi urdin, chirripa, ithurriak,  
Nere behi, ahuntz eta ardi bizkar guriak,

Non lehengo nere bide, chingola iduriak,  
Amets histu bat neretzat zaretenak guziak.

Besta egun herrikoan nere gazte lagunak  
Chirula joz, badohatzi kantuz plazara denak :  
Gaur pilotan, bihar dantzan hekien atseginak  
Ni, hetarik urrundua, zer nere bihotz minak !

Oh ezkila ! hik neretzat lehenik jo huena,  
Hik orobat joko bahu nere azken orena !  
Hire itzalean nian bizirik urosena,  
Aditzean mendi hetan hire-hats beherena.

Nere ama orai urrun kausitzen dut ni ganik ;  
Gehiago ez dut hemen haren begitarterik.  
Nihor, ez adichkide bat nitaz artha nuenik ;  
Nihor, nere oinazetan kontsolatzen nauenik.

Hemen jende arrotzetan ni hiltzen naizenean,  
Bihotz minik gabe naute ezarriren lur-pean.  
Nork daut gero, noiz edo noiz, orhoitzapen ba-  
[tean,  
Loretto bat pausaturen nere tomha gainean.

Bozkarioz bizitzera, ukaturik herria  
Desterratu bertze behin ez nindake abia.  
Bai ondikotz ! kiratsa zait desterruko ogia  
Hemen ezin bertzean dut higaturen bizia !

Ur-chirripa ez da galtzen nikoiz bere ohetik  
Ez eta ere arroka, sarthua den menditik.  
Hek bezala, sor lekuaz amodio iżanik  
Zuhur denak kanta beza bethi bere herritik.

XVI

**MUTHIL ZAHARRA**

Bakharrik bizitzeaz unhatua franko  
Chede zerbait banuen lagun bat hartzeko;  
Baiñan orai andreak zembat ez-du behar!  
Ez, ez, nahiago dut egon muthil-zahar.

Herrunka guzietan estatua gaindi,  
Egun oroz baitugu milla moda berri,  
Hoinbertze gasterrekin, nola menaian sar;  
Ez, ez, nahiago dut egon muthil-zahar.

Grizetek utzi dute mokanes pullita,  
Ustez hobeki dohan lore-dun boneta;  
Zer! boneta buruan neskatcha bat nik har!  
Ez, ez, nahiago dut egon muthil-zahar.

Sederian sartsuak, printzesak iduri,  
Fu! egiten diote soin telapintari,  
Horrela uste dute zembait choro lokhar;  
Ni ez bainaiz logale, nago muthil-zahar.

Handiek badakite musian kantatzen,  
Briñan badakitea botoin baten lotzen!  
Dendari jornaletan zembat urre, zilhar!  
Ez, ez, nahiago dut egon muthil-zahar.

Miraill baten aldean, goizetik josiak,  
Han dituzte miratzen aurkhintza guziak,  
Egun gauza bat eskas, bertze zerbeit bihar  
Nor ez-da lotsatuko? Gauden muthil-zahar.

Zenbat senhar munduan, gaizki gerthatuak  
Lephoraino sasian direnak sarthuak  
Orai egiten dute berantegi nigar ;  
Hambat gaichto berentzat ; egon muthil-zahar.

Ezkontzako bideak, legun eta garbi ;  
Urrundik begiratuz, du belus' iduri,  
Baiñan da hurbilletik, dena harri, bizkar,  
Nola bainaiz lautsuzko, nago muthil-zahar.

Segur da deithuko nau, batek galai hotza,  
Behar bada bertzeak harpagon zikhoitza ;  
Laidoen jasaiteko senti baitut indar,  
Askoz nahiago dut egon muthil-zahar.

Oi ! hauche da menda gizon-gazten dako !  
Orai andreak dire jaunen larrutzeko ;  
Ez othe-da, diozu chuhur zembait bakhar ?  
Ez-nezake zin egiñ, gauden muthil-zahar.

Hobeago zuretzat othe-da zoria !  
Zuri nago, neskatcha, goregi jarria ?  
Utzatzu sobraniak, izanen da senhar ;  
Non-ez, egonen-zare bortchaz neska-zahar.

---

XVII

**NERE ETCHEA**

Ikhusten duzu goizean  
Argia hasten denean !  
Menditto baten gainean  
Etche ttipitto, aintzin churi bat ;

Lau haitz ondoren erdian,  
Chakhur churi bat athean,  
Ithurriño bat aldean,  
Han bizi naiz ni bakean.

Nahiz ez den gaztelua ;  
Maite duk nik sor-lekhua  
Aiten aitek hautatua.  
Etchetik kampo zait iduritzen  
Nombeit naizela galdua ;  
Nola han bainaiz sorthua,  
Han utziko dut mundua  
Galtzen ez badut zentzua.

Etchean ditut nereak  
Akilo, haitzur, goldeak,  
Uztarri eta hedeak ;  
Jazko bihiez, ditut oraino  
Zoko guziak betheak ;  
Nola iragan urtheak  
Emaiten badu bertzeak,  
Ez gaitu hilen goseak,  
Landako hirur behiak  
Esnez hampatu ditiak  
Ahatche eta ergiak,  
Bi idi handi kopeta zuri,  
Bizkar beltz, adar handiak,  
Zikiro, bildots guriak,  
Ahuntzak eta ardiak,  
Nereak dire guziak.

Ez da munduan gizonik  
Erregerik ez printzerik,

Ni bezein urusa denik ;  
Badut andrea, badut semea,  
Badut alaba ere nik ;  
Osasun ona batetik,  
Ontasun aski bertzetik,  
Zer behar dut gehiago nik ?  
Goizean hasiz lanean  
Arratsa heldu denean,  
Nausi naiz mahainean ;  
Giristino bat ona dut hartu  
Nik emaztea hartzean,  
Ez du mehe egunean,  
Sarthuko uste gabean  
Chingar hezurrik eltzean.  
Piarres ene semea,  
Nahiz oraino gaztea,  
Da muthiko bat ernea ;  
Goizean goizik bazken erdira  
Badarama arthaldea ;  
Segituz ene bidea,  
Nola baitu egitea,  
Ez du galduko etchea.  
Ene alaba Kattalin,  
Bere hameka urthekin,  
Ongi doha amarekin ;  
Begiak ditu amak bezala,  
Zeru zola bezin urdin ;  
Uste dut demborarekin  
Oraiko itchurarekin,  
Andre on bat dio egin.

Ez dugu behar lurrean,  
Ongi bizirik etchean,  
Utzi laguna gosean :  
Ez du beharrak sekulan jotzen  
Gure etcheko athean,  
Non ez duen mahainean  
Othuntza ordu denean  
Lekhu bat gure aldean.

Ene andrea Maria  
Ez da andre bat handia  
Bainan emazte garbia ;  
Irri batentzat badut etchean  
Nik behar dudan guzia,  
Galdegiten dut grazia  
Dudan bezala hasia  
Akhabatzeko bizia.

ELISSAMBOUROU.

---

XVIII

LA VIOLETTE

(*Par le Docteur Larralde, Concours de 1862*)

Alferretan haiz sortzen, oi lore maitea,  
Baratze bazterretan, humilki gordea.  
Bafada gochoenak hau bethi salhatzen ;  
Hire egoitza bakhotchak aiseki khausitzen.

Orai errak zertako haizen hoin herabe :  
Eder duk modestia, bainan gaindi gabe.

Berthutean orobat, bertzeten bezala.  
Jakizak, ez badakik, neurri badela.

Bertze lore guziak sorthu bezain sarri,  
Arrai, dantzan bizi-tuk, zefir soinulari :  
Hi aldiz belharpean, burua behera,  
Alhargun bat iduri, lurrari begira.

Bainan diok Jainkoak jhauela landatu,  
Ez dukala lekhua heronek hautatu  
Hori baizik ez bada, hoi bada guzia.  
Adi nezak zer gerthuz hagon ehortzia.

Ezunak hire hasia hola eztaltzean,  
Ber ustez bertze zembait zaukaian eskuan ;  
Ezen dukan soin hori ez duk ilhumbeko,  
Hain guti hire hatsa lurruk iresteko.

Ez dik naturalezak bere mila obretan,  
Nihon, deusik agertzen egina alferretan,  
Bada, bahintz munduan gordea egoteko,  
Hire dohain guziak, errak, zertarako ?

Horra beraz argitan zeruko chedea ;  
Egun etzaik zilhegi duda egitea.  
Orai behar duk jakin, entzun nezak ongi,  
Hire gana zertara ni nauten igorri.

Hire lagunek haute beren gana deitzen  
Jelosia bera ere heier duk juntatzen ?  
Altcha beraz lurrekik, ez ukha ethorkia ;  
Arrosaren aldean duk hire-tokia.

XIX

**KAIKU!**

Neure andrea andre ona,  
Gobernu ona du... hauzuan;  
Hartzen duelarik bere alaba,

Mari-Kattalin altzuan,

Ai zazu

— Zer nah'uzu!  
— Gero're horrela munduan  
Ere biak biziko gerare gu,  
Baldin bazera kontentu (*bis*).

Nik bethi freskotchorik tabernakua  
Sototchuan deraukat arno gozua.  
Ai! zer kontentu! ai! zer alegre!  
Eskaintzen dautzut, neure maitia.  
Arroitzchuak eta kaiku esnia.

San Blas'alderat nindularik,  
Makhiltcho baten gainean,  
Arhantze beltz bat sarthu zitzautan,  
Uspela nuen oinean.

Ai zazu, etc.

---

XX

**LURRAREN PEAN SAR NINDEITEKE**

Lurraren pean sar nindeiteke maitea zure ahal-  
gez

Bortz phentsamendu egunik nago zurekin egon  
beharrez

Bortha barnetik zerratu eta gamberan bethi  
nigarrez

Phentsamenduak airean eta bihotzetikan do-  
lorez

Ene changrinez hilarazteko sorthua zinen ara-  
bez.

Oren onean sorthua zira izar ororen izarra  
Zure parerik ez zait agertzen ene begien bich-  
tara.

Espos laguntzat nahi zintudan erran neraitzun  
bezala

Bainan zuri ez iduritzen zuretzat aski nintzala  
Ni baino lagun hobe batekin Jainkoak gertha  
zitzala.

Mariñelak joaiten dire itsasorat untziko  
Zuretzat dudan amodioa ez dut sekulan utziko.  
Charmegarria, nahiz ez giren elgarrekilan biziko  
Behin maithatu zaitut eta ez zaitut hastiatuko  
Ene bihotzean sarthua zira eternitate guziko.

Primaderan zoin den eder choria khantuz kan-  
poan

Amodioak bainerabilkha maitea zure ondoan  
Charmegarria, ezzaitut nahi bortchatu amodioan  
Ni changrinez hilikan ere satisfa zaite gogoan  
Maluruski aski banuzu bakharrik nihaur mun-  
duan.



XXI

**LILI BAT IKHUSI DUT**

1

Lili bat ikhusi dut baratze batean  
Desiratzen bainuke nere sahetsean  
Lorea ez du galtzen udan ez neguan  
Haren parerik ez da bertze bat munduan.

2

Deliberatu nuen gau batez joitera  
Lili arraro haren eskura hartzera  
Ez bainuen pentsatzen beiratzen zutela  
Gau hartan uste'nuen han galtzen nintzela.

3

Etsenplu bat nahi dut eman munduari  
Eta partikulazki jende gazteari :  
Gabaz ibiltzen dena ez da zuhurregi,  
Ni begiraturen naiz, eskerrak Jainkoari.

---

XXII

**MENDIAN ZOIN DEN EDER**

1

Mendian zoin den eder epher zango gorri  
Ez da behar fidatu itchur'eder horri  
Ene maiteak ere bertzeak iduri  
Niri hitzeman eta gibelaz itzuli.

3

2

Ene bihotza duzu zu ganat erori (*bis*).  
Eta zurea aldiz harria iduri :  
Ene begi gaichoak nigarrez ithurri.

3

Airea zahar eta khantorea berri  
Ene maite pollita zira charmegarri  
Kolore churi-gorri arrosa iduri  
Mundurat jina zira ene ihargarri.

4

Heldu naiz zure ganat arrosa ederra  
Ezin bertze huntarik nezazun athera,  
Changrin huntan hiltzeko banindu malura  
Bihotzean zinuke bethiko nigarra.

---

## XXIII

### DONOSTIAKO HIRU DAMATCHO

Iru damatcho Donostiako Errenterian dendari ;  
Josten ere badakite, baino ardo edaten obeki  
Ta kriskitin, krosketin arrosa klabedin  
Ardo edaten obeki.

Iru damatcho Donostiako, irurak gonak gorriak,  
Sartzen dirade tabernan eta ilkhitzen dira ordiak  
Ta kriskitin, etc.

Donostiako neskatchatchuak kalerat nai dute-nian,

Ama, eztago piperrik-eta banua salto batian  
Ta kriskitin, etc.

Iru damatcho Donostiakok, egin eidute apostu  
Nork ardo geiago edan eta zein gutchiago moz-  
kortu

Ta kriskitin, etc.

Donostiako iru neskatchak, zara iaren onduan,  
Etcherat biar dutenik ez dadukate goguan  
Ta kriskitin, etc.

Donostiarrek ekarri dute Getariatik akerra;  
Kampantorrian paratu dute, Aita-santua dutela  
Ta kriskitin, etc.

Donostiako kalle nausiko erdi erdiko etchian,  
Neskatcha batek mozkorra zeukan kamisa uts  
utsian.

Ta kriskitin, etc.

Donostiako molle gainian, egun senti-sentian,  
Haztan eder bat eman ziraten bular biaren-  
erdian.

Ta kitarra. kajolin, atabal dambolin!  
Donzella maya zurekin.

---

## XXIV

### BELTZUNTZE BIZKUNDIA

Eskualdunen arraza Hil dei' ala lo daiza!	Ez-dut endelgatzen! Beltzuntze bizkundia,
--	--

Hain kapitain handia,	Zu zira, Beltzuntze!
Nihork ez aiphatzen...!	Luzaz bizi zite.
Hori zait gaitzitzen.	Ethorri da berria
Beltzuntzeren izena	Bihotzen hausgarria
Bai eta 're omena	Kantak ichil beitez!
Urrun da hedatzen;	Gaudezen auhenetan,
Erregeren gortetan,	Dolore minenetan;
Hiri ta kampañetan	Gaudezen nigarrez;
Nork ez-du entzuten	Egin da Beltzuntzez!
Beltzuntzez mintza-	Nehork ez-garaitua,
[tzen?]	Garaitzen ohitua
Zuhauen herritarrek	Izan da garaitua
Bai eta Laphurtarrek	Oi herio garaia,
Goraki diote :	• Hi haiz haren etsaia.
Eskualdunen lilia	Hik duk gudukatu,
Et' ohoragailia	Bakharrik zebatu.

---

XXV

IRUTEN HARI NUZU

Iruten hari nuzu, khilua gerrian (*berriz*)  
Ardura dudalarik (*ber.*) nigarra berrian. (*ber.*)  
Nigar egiten duzu, oi suspirarekin! (*berriz*)  
Kontsolaturen zira (*ber.*), oi demborarekin! (*b.*)  
Ezkon-mina dudala zuk omen diozu (*ber.*);  
Ez dut amore minik (*ber.*), gezurra diozu. (*ber.*)  
Ezkon-mina dutenak seinale dirade (*ber.*)  
Mathel-hezurrak idor (*ber.*) koloreak berde. (*b.*)

XXVI

**NERE MAITE POLLITA**

Nere maite pollita, ez nauzu maithatzen!  
Bihotz erdiragarri zer duzu pentsatzen?  
Hambat dembora huntan nauzu abusatzen.  
Zertako hari zare ni hola flakatzen?

Primaderaren khoro oi liliz egina!  
Goizeko choriaren oi kantu ariña!  
Ez duzue eztitzen nere bihotzmina,  
Zeren sobera baitut amodio fina.

Maiz erraten dautazu zuk maite nauzula,  
Eta jendek erasten bertzerikan dela,  
Muthil gazte propitan mudakor zarela,  
Gizonen abusatzen zuk lakhet duzula.

Sinhesten baditutzu jendien erranak  
Eta guti prezatzen nere solas onak,  
Deus ez dira izanen zure ontasunak;  
Segur sinhetsiren nau ni maite nauenak.

Lilitan pollitena elhorri churia;  
Lilia goan ondoan, zein bihi gorria!  
Bihi barnean dauka oi hezur gogorra;  
Barnez gor, kampoz eder ba bihotz elhorra.

Zelhaiak buluz, triste, dirade neguan;  
Hegastinek ez dute kantatzen orduan.  
Ez da amodiorik zure bihotzean,  
Kita nezazu beraz nahi duzunean.

Etzitezela urrunt hola samurturik!  
Gau egunak naukazu nigarrez urthurik;  
Nik ez dakit zer erran zeren maithaturik  
Ez baitezaket izan nik sutaz bertzerik.

Nahi eta beldur naiz; beldur eta nahi!...  
Gizon gaztea baita oi enganagarri.  
Ez naite behinere jar deskantsuari;  
Zure beldur, zu maite, ni naiz urrikari!

---

XXVII

**AMODIOZKO SOLHASAK**

Ene maitia barda nun zinen  
Nik borthaňua joitian,  
Buruyan min ere nuyen eta  
Dudarik gabe ohian (*bis*).

Barda arratsian ametsetarik  
Botz bat entzun dut charmantik,  
Eztitasunez bethia beitzen.  
Harren parerik ez beitzen (*bis*).

Eztitasuna gauza ederra  
Nork nezake ni kondena,  
Gauaz loale egunaz ere  
Errepausurik batere (*bis*).

Charmagarria lo ziradia,  
Eztitasunez bethia,  
Lo baitzirade iratzar zite,  
Etziradia loz ase (*bis*).

Arboletan den ederrena da  
Oihan beltzian phagoa  
Hitzak ederrak ditutzu bainan,  
Bertzetan duzu gogoa (*bis*).

Nik zure ganik despegitzia  
Iduritzen zaut hiltzia,  
Hiltzen ez baniz bihurtuko niz  
Indazu bi pot, maitia (*bis*).

---

XXVIII

**ADIOS, IZAR EDERRA!**

Adios, izar ederra, adios izarra!  
Zu zare Aingerua munduan bakharra!  
Aingeruekin (*bis*) zaitut komparatzen  
Zembat maite zaitudan ez dut pentsatzen.

Adios, izar ederra, eta khariua,  
Neure begietako lili arraru!  
Bihotzez zurez (*bis*) gorphutzez banua.  
Jarrikiren zautazut zur'amodua.

Izan naiz Araguan eta Kastilloan.  
Hitz batez erraiteko España guzian;  
Ez dut ikhusi (*bis*) zu bezalakorik,  
Nafarroa guzian zaude famaturik.

Jarrikiten ninduzun izar eder hari  
Nola mariñel ona bere orratzari.  
Oi atentzione (*bis*) ene arrazoin huni :  
Etzitezuela fida amadioari.

Amodioa duzu arrosaren pare  
Usaina badu eta ondoan arhantze;  
Maitia, enauke (*bis*) zu gana jin gabe  
Hil behar banu ere hirur egun gabe,

---

XXIX

**ADIOS, ENE MAITIA**

Adios, ene maitia, adios sekulako!  
Nik eztit beste penarik, maitia zuretako.  
Zeren uzten zutudan libro bestendako...  
  
Zertako erraiten duzu adio sekulako?  
Uste duzia eztudala amodioa zuretako?  
Zuk nahi balin banaizu enukezu bestendako.

---

XXX

**CHORIÑUAK KA'OLAN**

Choriñuak kaiolan  
Tristerik du khantatzen  
Duelarikan zer jan, zer edan  
Kampua du desiratzen  
Zeren, zeren  
Libertatia zoíñen eder den.  
  
Hik, kampoko choria  
So'giok kaiolari  
Ahal balin bahedi

Hartarik begi' adi  
Zeren zeren  
Libertatia zoiñen eder den.  
  
Barda amets egin dit  
Maitia ikhusirik  
Ikhus eta ezin mintza  
Ezta pena handia  
Eta ezin bestia?  
Desiratzen nuke hiltzia.

---

XXXI

**SOLDADOGOATIK ESKUAL-HERRIRAT  
ITZULTZEN DENAREN KANTOREAK**

Airea : *Kailla kantuz oihonetik uztaillaren erdian.*

Zorigaitzik egun batez zortheak atzemanik  
Nere burhaso zaharrak nigarretan utzirik  
Soldado nintzela bada harmetan pharaturik  
Ninduten urrun eraman, urrun Eskual-Herritik.

Sor-lekhutik urruntzea zein den lastimagarri  
Maite guzien uztea oi zein erdiragarri  
Nik ez nuke sekulakotz adios erran nahi  
Ez nere etchekoeri, ez Eskual-Herriari.

Laster igorri ninduten Afrikaren barnera  
Laur urthe han egon eta deithu Italiara.  
Lekhu orotarik bethi, hegalekin bezala,  
Gogoa zautan airatzen, arin Eskual-Herrira.

Italiako Iurrean sartuz geroz Frantsesak  
Oi nolako sarraskiak! oi zer gizon galtzeak!  
Odol hibaiez dirade han gorritu bazterrak,  
Holakorik ez dezala ikhus Eskual-Herriak.

Burhaso gaicho hoitarik, semeak **galdurikan**.  
Zembatak ez dire jarri auhenik minenetan!  
Gure Jainko zerukoak hoin bihotz min handitan  
Beira gitzal' erortzetik guziz Eskual-Herrrian.

Eskualdunen omenari ez diot egin ukho  
Nere sabre-baionetak maiz agertu lekhuko;  
Solferinon kolpaturik zioten gehiago  
Ez nintzela ez bizirik ni Eskual-Herrirako.

Atsulaïko bizkarrean Ainhoako kapera,  
Han du nere ama onak othoitz egin ardura  
Aingeruen erreginak bida nazan etchera  
Bizirik eta osorik ekhar Eskual-Herrira.

Nere ama entzun duzu, oi Andre amultsua,  
Azken hatsera nindagon jadanik hurbildua  
Zuri esker baizen eztut nik beiratu bizia  
Zuri esker dut ikhusi berriz Eskual-Herrria.

Mundarraiñgo mendi hori bethi kopeta gora  
Ikhustea pizten daraut bihotzean pilpira  
Italiako lurretik eri nintzen athera  
Bainan sendatu heltzean gure Eskual-Herrira.

Irriskuak iraganik trankil orai etchean  
Hauche diot Jainkoari galdetzen azkenean  
Bizi nadin hainitz urthez ait'amekin batean?  
Nere eguna higa diten Eskual-Herri maitean.

\* ELIZALDE, *Ainhoarrari uitz-urhea.*

XXXII

DANTZARIA

Airea : *Ortzirale arratsian*  
*Garruzetik jin ninduijan, etc.*

Hupa muthillak lorian  
Nola choriak airean  
Heldu nauk zuen erdian

Rau, riu, rau, rata-plan, rau, riu, rau.  
Heldu nauk zuen erdian  
Besta baitugu herrian.

Hu-pa alegera gaiten,  
Soinua hari da joiten  
Joan gaizkola du erraiten.

Rau, riu, etc.  
Joan gaizkola du erraiten  
Urthean behin bederen.

Hu-pa huna beraz ; plazan  
Aurthen ez baikinen izan !  
Oro hari gaituk dantzan.

Rau, riu, etc.  
Oro hari gaituk dantzan  
Zaharrak gaztekin baltsan.

Hu-pa arreba Kattalin  
Orai ez dun buruan min  
Badabiltzan oinak arin

Rau, riu, etc.

Badabiltzan oinak arin  
Tumpaka omen badakin

Hu-pa Maria atzo hi  
Ohetik ez hintzen jeiki  
Lanean hartzeko eri

Rau, riu, etc.

Lanean hartzeko eri  
Egun gurekin dantzari.

Hu-pa hik soinularia  
Ardura duk egarria  
Hi ere gu iduria

Rau, riu, etc.

Hi ere gu iduria  
Okasionez balia.

Hu-pa gur' etchean ama  
Oilasko hiltzen hari da.  
Arnoak ez diro falta.

Rau, riu, etc.

Arnoak ez diro falta,  
Bizi bada gure Aita.

Hu-pa ama ez dut nahi  
Khorda eman lephoari  
Gazte nahi naiz ibili

Rau, riu, etc.

Gazte nahi naiz ibili  
Ezkontzaz ez aipha niri.

Hu-pa etchean bi andre  
Gerla bizia laiteke

Mokhorra, ama zu ere.  
Rau, riu, etc.

Mokhorra, ama zu ere  
Bake onik ez ginuke.

ELISSAMBURU.

---

XXXIII

**OKHERTUAK BERE OKHERTZAILEARI  
KOPLAK**

Fortuna erori zait burutik behera  
Zuri baitautzut esker gure jaun Barbera  
Harriturik bakhotcha niri dago beira

Bi begiez

Nik guziak ikhusten begi bakhar batez.

Lehen biez,

Orai batez.

Oro ikhusten begi batez.

Mundu hau bethea da zembañ nahigabez,  
Barberak okhertu nau, oklitche izanez.  
Lehen banindagoen ardura nigarrez

Bi begiez

Zertako biez egin? Aski daite batez

Lehen biez

Orai batez.

Jaun hari esker, begi batez.

Nombait balimbadira bi bos liberako  
Bietarik ohoinak ez dik bat utziko

Zuhurra den gizonak ez beza egin lo  
Bi begiez  
Barberak manaturik, egiten dut batez.  
Lehen biez  
Orai batez.  
Zuhurren gisa begi batez.

Zuré ohoratzeko, gure jaun Barbera  
Lau kopla ez dirade izanen sobera :  
Lehen ikhusten nuen Betirisants bera  
Bi begiez  
Milesker, jaun Barbera, egundanik batez  
Lehen biez  
Orai batez  
Hobe lizate niholaz ez.

---

XXXIV

**GAZTE HILTZERA DOHANA**

Hogoigarren urthera hari naiz hurbiltzen,  
Eta nere oinetan tomba dut ikhusten.  
Ni zertako mundura ethorria nintzen,  
Ondikoz! ez sortzea neretzat hobe zen.

Sekulan zoriona zer den jakin gabe  
Hainitz dut nik lurrean izan atsekabe.  
Lore sortu orduko histu baten pare,  
Biziaren uztera guti naiz herabe.

Ez-ez enau izitzen ez ni herioak,  
Laster khen dezadala bizia Jainkoak

Sehaskan galdu ditut nere burasoak  
Zer diren eztut jakin etcheko gozoak.

« Aita ama maiteak, zertako mundutik  
« Zerura goan zineten ni hemen utzirik  
« Ez dut nik mundu huntan izan sosegurik,  
« Ez baitut ezagutu amaren musurik. »

Hamazazpi urthetan, zorigaitz dorphea!  
Izar bat maitatu dut parerik gabea :  
Aingeru bat zaiteken zeruko umea  
Nere bihotz eritik juan darot bakea.

« Nahiz aingeru ona, ez duzu sekulan  
« Munduan jakin zembat nik maite zintudan  
« Urus zarenaz geroz Jaunaren oinetan  
« Ez nezazula ahantz zure othoitzetan. »

Anaia bat banuen haurra nintzelarik  
Soldado juan zen eta nik ez dut berririk :  
Aita amekin dela ez daite dudarik  
Niri begira daude hirurak zerutik.

Ahituz banarama nere oinhazeak  
Burhasoen aldera deitzen nau zortheak,  
Nork ditu arthatuko, ait'ama maiteak,  
Zuen tomba gainean nik eman loreak.

Nere gorputz flakoa lurrerat orduko  
Nor othe da munduan nitaz orhoituko?  
Nere ehortz lekhura nor da hurbilduko?  
Lore berririk ez da neretzat sortuko.

Mendian ur chirripa, harrien artean,  
Auhen eta nigarrez jausten da bidean

Izan nahi bailuke zelhai ederrean  
Hala nere egunak badohaz lurrean.

HARLOUCHI.

*Lehen-garhait-saria : makila.*

---

XXXV

**ARRANUAK BORTHIETAN**

Arranuak borthietan gora dabilta hegaletan,  
Ni ere beste orduz anderek i khambaretan,  
Orai aldiz, ardura, ardura, nigarra dizut begie-  
tan.

Eztuta nik pena handia, entzulerik ukhen gabia,  
Juratu diñat fedia, doluturen zen maitia,  
Eni behatu gabia, galdu diñat libertatia.

Erlia doa mendiz mendi, harek han biltzen du lili,  
Hartarik egiten du ezti, eztiak oro ez bardin ezti,  
Munduko neskatila gaztik eztira bardin charma-  
garri.

Eni anaiak igorri letera batez goraintzi,  
Entzun diala bai berri banabilala anderek i,  
Utzi ditzadan anderiak, zer nahi dudan ideki.

Egin diot arrapostu, nola beitu merechitu,  
Harek ere zounbait beitu, nik hetaz guti pro-  
feitu

Uzten dudala hora bereki, uzti nezan ni enekin  
pausu.

Hartzen diat ofiziua, Iratiat ulhaiñ banua,  
Nula beatut biziua, oihanetan kantatzekua.  
Abis hunik emaitez eta egia erraitez banua.

Ahaire hau zahar umen da, duda gabe en'adin  
beita

Hountan nahi dit khantatu, noula den gazte  
perfeita

Gezur guti erraile beita, umil eta serious hura.

Arusatziak ejer lilia, zuhain berak du elhorria.

Amorio traidoriak berekilan azotia,

Hala diro borogatiak begir' troumpa'adichkidia.

Aitak dio alhabari, noun habila laidogarri ?

Alhabak bertan aitari, segur abis houn sari,

Orai bera da doluturik, esklabo delakotz jarri.

Orai bera doluturik dago, bena berantu zaio,

Herritik joun nahiago egoitia laido baitzaio,

Hil baledi aldiz oraino, thoumban sarthu na-  
hiago.

Hambat duzu afluxurik, libertatia galdurik,

Pena dolorez kargaturik, osagarriz gabeturik.

Oro berak causaturik, amouriouak traditurik.

Laur ourhetako haur gachoua, leial duk hik  
amourioua,

Hitan etsemplu har dezagun, maitha goure  
protsimoua,

Lazukeriak kita eta zerbutcha zeluko Jinkoua.

Kantore hoien egitian, ulhain nintzan borthian

Pasoula peko oihanian, abis hounik emaiten nian  
Deuser' ezin sinhets craziz, mankarrot egiteko  
aiherrian.

Hartz handi bat, oihan hartan, nihauri so ikhusi  
nian.

Hortzak churi, begiak gorri, lephoua lodi bei-  
tzutian.

Khantore hoien huntzia utzirik, mankarrot do-  
ble egin nian.

---

### XXXVI

#### CHORITTUA NOUAT HOUA

1		EspaÑalat jouaitian
Chorittua nouat houa,	Hau da ene pausada :	
Bi hegalez airian?	Gibelerat so egin eta	
EspaÑalat jouaiteko,	Hasperena ardura.	
Elhurra duk bortian :		3
Jouanen gutiek algar-	Hasperena, abil, houa	
[reki]	Maitiaren bortalat,	
Houa hourtu denian	Abil, eta erran izok	
2	Nik igorten hautala!	
San Josepen ermita	Bihotzian sar hakio	
Desertian gora da :	Houa eni bezala.	

XXXVII

**LORE EDERRA**

1

Lore pollit bat badut nik (*bis*).  
Aspaldi begiztaturik (*bis'*).  
Bainan ez naite mentura  
Haren hartzera eskura;  
Baitakit zer den lanjera  
Hari behatzia sobera.

2

Lore ederra behazu (*bis*).  
Maite nauzunez errazu (*bis*).  
Zure begiek ene bihotza  
Betbetan dute kolpatu.  
Kolpe hortarik badut nik  
Malhur izaitia irrisku.

3

Aize hotzari guardia (*bis*),  
Iguzkiari ez fida (*bis*);  
Zure kolore bizia  
Izan daiteke histua.  
Esku on batek biltzia  
Desiratzen dautzut, maitia.

---

XXXVIII

**GITARRA JOILEA**

1

Gitarra tcharcho bat det nik nere laguna,  
Horrela ibiltzen da artist Eskualduna;  
Egun batian pobre, bestietan jauna;  
Kantatzen pasatzen det nik bethi eguna.

2

Nahiz dela Italia, orobat Frantzia,  
Bietan billatu det mila malizia;  
Korritzen badet ere nik mundu guzia,  
Maitaturen det bethi Eskualdun herria.

3

Jaunak emaiten badet neri osasuna,  
Orañik izango det andregai bat ona;  
Nahi badet Frantsesa interesa duna,  
Bainan nik naiago det hutsik Eskualduna.

4

Adios Eskual herria, ez bañan bethiko;  
Bortz sei urthe huntan ez det ikhusiko!  
Jaunari eskatzen diot grazia emaiteko  
Lur maite huntan bizia uzteko.

---

XXXIX

**CHARMAGARRIA**

1

Charmagarri bat dizut maite bihotzeti,  
Amodiotan gare biak elgarreki.  
Haren aire ederraz agrada niz bethi (*bis*).  
Parerik baduiela ez baitzaut iduri (*bis*).

2

Amodioa zer den jende gaztendako,  
Ardura bihotzian pena emaiteko.  
Hala behar du izan orai neuretako  
Ukhaiten ez bazitut, maitea, bethidako.

3

Aritza lilitzen da Maiatzean bethi ;  
Ene bihotza ere zu ganat erori.  
Zu zira arbolia, ni zure lilia  
Gure bien frutuia fidelitatia.

XL

**HERRIKO BESTA BIHARAMUNA**

1

Iragan besta biharamunian,  
Berek dakiten choko batian,  
Lau andre, hirur mutchurdin, bat alarguna,  
[jarriak itzalian,

Harri chabal bat belhaunen gainian,  
Hari ziren, hari ziren trukian.

2

Zer othe duten nik jakin nahi  
Pitcharrarekin bertze jaun hori;  
Zorroa du biribila, moko mehea, tente chutik  
Chahako bat othe den nago ni [egoki,  
Hampatua, hampatua ederki.

3

Jes! oraino zer dut bada ikhusten?  
Zer ba hegaluean dute gordetzen?  
Egoitza gocho hortarik, burua alto, chahakoa,  
Bihotzez azkarrago zeren den, [trufatzen,  
Kuiattoa, Kuiattoa ari zen.

4

Handikan chimiko, hemendik irri.  
Haur batzu bezala jostetan ari;  
Gogotik ematen dute begi kolpe bat hegalean  
Hitz bat erran gogo diote sarri [denari.  
Beharrirat, beharrirat kuiari.

5

Seira truk dirade zazpietarik,  
Tantoz ere bardin bi aldetarik.  
Chahakoa eroria, mokoz iphurdi, naski odolaz  
Kuiattoa han dagoke etzanik. [husturik,  
Azken hatsa, azken hatsa emanik.

6

Gezurrik gabe goázen, Maria;  
Eman ba jokoan ezti eztia;

Hurbil zan untzi beltz hori, dezagun edan trago  
Bihotza dinat epheltzen hasia. [bat edo bia.  
Harek zuen, harek zuen grazia.

7

Zahagiaren seme joria,  
Nun duk achtiko zorro lodia?

Gaizoa, lehen birundan zurgatu dautek odolaren  
Orai hor ago zimurrik arpegia, [erdia  
Kokoriko, kokoriko jarria.

8

Nahiz zeraukan azken eskua,  
Mariak zuen hasi gudua.

Truk. — Jo zan. — Mariak change, Catichak  
[chaldun, Marichumek hirua.  
Mari Martin choratu zait burua,  
Lauarekin hiruaren kheinua!

9

Ago, Maria, othoi, ichilik,  
Ez dun ikhusi nere kheinurik.

Chorta bat edanez geroz, begiak ñirñir; zer ez  
[dun ahalkerik?  
Edan hezake azkarren hortarik,  
Gatilua, gatilua betherik.

10

Bazakinagu, tresna makhurra,  
Ezdunala hik hatsa laburra.

Ez dun, ez, dionan bezala, horma churgatuz,  
[biribildu muthurra,  
Ez eta ere gorritu sudurra,  
Milikatuz, milikatuz elhurra.

11

Apho mutchurdin moko biphila,  
Zeren ondoan othe abila?  
Hatz baduń gibel aldean, ikhusiko dun zembat  
[naizen abila;  
Chuhur badun, ago, neska chirtchila.  
Ichil, ichil, ichil, ichil, ichila.

12 \*

Kartak utzirik, eta tantoak,  
Han zituzten han gero saltoak.  
Bakharrík hiruen kontra, zer eginen du hor  
[gure Martin gaizoak?  
Nahiz izan azkar zango besoak,  
Hartu ditu, hartu ditu paloak.

13

Herriko besta arrats aphalian  
Lau gatu zahar anjelusian,  
Bat maingu, hirur saltoka, sorginak pujes! zo-  
[hatzila bidian,  
Nik ikhusi ditut amets batian,  
Akhelarre, akhelarre gainian.

---

XLI

**AMODIO ESKASA**

1

Argia dela diozu, Luze iduritzen zaitzu;  
Gauerdi oraino ez duzu, Amodiorik ez duzu  
Enekilako dembora Orai zaitut ezagutu.

2

Othea lili denian  
Choria haren gainian,  
Houa jouaiten airian  
Berak plazer diainian ;  
Zure eta nere amodioa  
Hala dabila mundian.

3

Phartitu nintzan her-  
[ritik  
Bihotza alagerarik ;  
Arrajin nintzan herrian  
Nigarra nian begian ;  
Har nezazu saihetsian  
Bizi naizeno mendian.

---

XLII

**IKHAZKETAKO MANDOA**

1

Hauche da ikhazketako mandoaren traza :  
Lephoa mehe du eta lilia latza,  
Itchura gaitza ;  
Bastape guzitikan zauriak balsa ;  
Hauche da salsa !  
Krichtaurik ez daiteke aldetik phasa (*bis*).

2

Lephoa mehe du eta buruia handi.  
Mathel hezurra seko, dena beharri,  
Begiak eri ;  
Bi sudur zilotarik mukiak dari,  
Ezpainak larri ;  
Hortzik izan badu ere ez du ageri (*bis*).  
3

Bi hitzez aitzazue laur hatzen failak :  
Belhauna handi eta makhur gidailak,

4

Lurrera zailak ;

Kortesia eskatzen belhaunez ari da ;

Gero ezin altcha.

Haurren mantenatzeko zer abantaila (*bis*).

4

Fantasia asko badu mando lapurrik :

Lauir zangoak trepel eta juntetan hurrak,

Hanka makhurrak ;

Ezpata bezain chorrotch bizkar hezurra,

Ez dut gezurra.

Noiz larruturen zautan ni naiz beldurra (*bis*).

5

Mando itsusi, zikhin, lotsagarria,

Galtzera bota ditak osagarria,

Okhagarria !

Sartzera eztio nahi utzi ostaleriak ,

Haren sartziak

Urrintzen diotela etche guzia (*bis*).

6

Buruko krapestuak grandeza badu ;

Erostunikan balu, nahi nuke saldu,

Ahal bezein zalhu ;

Chiki bat arnoren saria iten ahal balu.

Charrantchak salbu ,

Tratu hortan hainitzik ez liro galdu (*bis*).

7

Aitzineko petrailaz dago espantuz ,

Zeren dakota duien erdia espartuz

Bertz' erdia trapuz ,

Hatzeman puska guziak lurretik hartuz;

Ase niz tratuz.

Enfadaturik nago botigan sarthuz (*bis*).

8

Galtzera bota didak manta bat fina,  
Atchunaren demboran Kadiztik jina.

Oi, manta fina !

Oro koropillo eta zilo et'ezkina,  
Petatchuz ina.

Sekulan ez zaut juanen mantaren mina (*bis*).

9

Sakerdi bat berria badu bereki ;  
Beldurra dago ladronek nombeit edeki ;  
Dabil'ederki ;  
Kapusail zar puska bat larru bateki  
Kumputuz bethi,  
Zirdina dariola hanketan beiti (*bis*).

10

Ene munduak duen zingila korda  
Juan den zazpi urthian botikan zor da ;  
Dembora sobra !

Merkatariarekin erre'itut kordak,  
Testigu obrak.

Nik ere hartzekoak ez zaizket kobra (*bis*).

11

Ikhatz zaku ederren jabe nabilla ;  
Ahoak nun dituen ez taite billa ;  
Phorroska milla.

Zazpi zortzi petatchu elgarrekilan.

Ziloekilan.

Heien bethatzaleak badik aski lan (*bis*).

12

Eskuaraz « Zingila » eta erdaraz « Chincha »  
Horren gainian ere badut zer mintza.

Biluaren gisa

Trenka dakidan beldurrez ez dirot tinka,  
Kargak egin'ta  
Hortan gezurrik bada, lephoa pika (*bis*).

13

Mandoa zahartu zaut, krastuak hautsi ;  
Erostean egin zorra oraino bizi ;  
Badut lan aski.

Norat nahi juan nadin zorra dut nausí.

Hobe dut naski

Ferrak athera eta larrerat utzi (*bis*).

14

Neskatcha banintz eta majora falta,  
Ikhazkinik ezkontzaz ez niro trata,  
Jainkoak barkha !

Lastimagarri baita ikhazkin hauta  
Dabilan planta :

Etchetik ez dirola bethi athera (*bis*).

15

Ikhazta saldu eta ndoko traza,  
Gaitzuru bat artoren saria falta,  
Etchera joan da.

Andriak nigar eta haurrek marraska ;  
Ezin balaka

Talo baten gaiik ez dio harrapa (*bis*).

16

Abarkatik has nadien emeki emeki,  
Haragi ustel urrin bat badu bereki;

Halere ederki

Aztal eta behatza kampoan bethi,

Ziloa petik :

Zangoak erretzeko perilik eztik (*bis*).

17

Galtzazpien berriak erraintut garbi :

Botoinak ttiki eta chiluak larri,

Chotchak ezarri ;

Berreheun lekhutarik larri' ageri,

Bragetak irri.

Jainko parte! pikorrik ez duke sarri (*bis*).

18

Barneko motch bat badut anhitz ederra,

Urratuaren hutsez ez dirot zerra

Andre alferra !

Orratza duenian hariaz gerla ;

Apho fardala !

Sukaldian lo dago jaiki eta berla (*bis*).

19

Hara ikhazketariet duten girua :

Bonetaren kaskoa chuchen zilua,

Phuntuz bildua ;

Laur errhi trebesetan chutik bilua.

Ene migua !

Nik ez dakit zer' iten duten dirua (*bis*).

XLIII

BIDARRAITARRA

1

Mila zortzi ehun eta hemeretzian,  
Urriaren hilaren bederatzian,  
Omore ona nuien hauien kantatzian :  
Gazte eta alegera, trankil bihotzian,  
Ontasuna frango badut intresian,  
Deusik ez etchian ;  
Orai bezain aberats nintzan sortzian.

2

Nor nahik zer nahi erranikan ere  
Bidarraitarra nuzu, bai nahi ere ;  
Etcheko seme ona, segurki halere,  
Nahiz baden herrian hobechagorik ere ;  
Baditut bortz haurride, enekin sei dire,  
Oro adichkide,  
Dotiaren gainetik samurturen ez gire.

3

Aita ezkondu zen gure amarekin,  
Ama aitarekin, biak elgarrekin ;  
Orduian gazte ziren, bertze zerbaitekin,  
Eta orai zahartu miseriarekin :  
Ontasuna igorri bertze haurridekin.

Parte bat enekin,  
Enekin baino haboro bertze bortzekin.

4

Aita zen etcheko, ama kampoko,  
Jainkoak egin'tu elgarrekilako  
Hirur muthiko eta hirur neskatoko,  
Haurrik aski badute aisa bizitzeko.  
Balinba bertzerik ez zaie sorthuko,  
    Ez da fidatzeko;  
Arraza nasaietik baitire, horra zertako.

5

Adinen beha gaude egia erraiteko,  
Gure ontasun ororen partitzeko.  
Diru idorra ere bada bizikichko,  
Jainkoak daki zembat den bakhotcharen dako;  
Izaiten badugu ez dugu utziko  
    Auzokuen dako;  
Bainan ez daikugu sakelarik erreko.

6

Hemen bagirade orai zembat lagun,  
Botoila bana arno edan dezagun.  
Lehenik ona denez jasta dezagun,  
Ona balin bada bira edan detzagun.  
Trinka dezagun, plazer har dezagun,  
    Bilha zembait lagun  
Diru dianak izanen dik ezagun.

7

Etcheko anderia, zure trichtia,  
Iduritzen zaitzu girela diru gabia.  
Dirua badugu, bainan dugu larria;  
Zor utziren dautzugu gaurko afaria.

Etcheko anderia, emazu guardia.

Har pazientzia.

Noizbeit izanen duzu pagamendia.

---

XLIV

**AGUR EUSKAL HERRIA !**

1

Gazte gazte joan nintzan  
Herritik kampora ;  
Estranjere aldean  
Pasa det dembora  
Herri alde guzti etan  
Toki onak badira ,  
Bañan bihotzak dio :  
« Zoaz Euskalherrira . »

2

Agur nere bihotzeko  
Amacho maitea ,  
Laster etorriko naiz  
Kontsola zaitea .

Jaungoikoak bada nai-  
Ni urez juatea ; [du  
Ama zertarako da  
Nigar egitea ?

3

Lur maitea emen uztea  
Da negargarria .  
Emen gelditzen dira  
Ama eta herria .  
Urez noa ikustera ,  
Bai , mundu berria ;  
Oranche , bai , naizela  
Urrikalgarria .

---

XLV

**ATHARRATZE JAUREGUIA**

1

Atharratze jauregui an bi zitroin poratu  
Hongriako erregek batto du galdu ;

Arrapostu ukhan du ez direla huntu,  
Huntu direnian batto ukhanen du.

2

Atharratzeko hiria hiri ordoki ;  
Hur handi bat baduzu alde bateti,  
Errege bidia erdi erditi  
Maria Madalena beste aldeti.

3

Aita, saldu nauzu idi bat bezala,  
Ama bizi ukhen banu, aita zu bezala,  
Enunduzun ez joanen Hongrian behera,  
Bena bai ezkonturen Atharratze Salala.

4

Ahizpa, juan zite portaliala,  
Ingoiti horra duzu Hongriako erregia ;  
Hari erran izozu ni eri nizala,  
Zazpi urthe huntan ohian nizala.

5

Ahizpa, ez nukezu ez sinhetsia.  
Zazpi urthe huntan ohian zirela,  
Zazpi urthe huntan ohian zirela ;  
Bera nahi dukezu jin zu ziren lekhila.

6

Ahizpa, jauntz ezazu arropa berdia,  
Nik ere jauntziren dit ene churia.  
Ingoiti horra duzu Hongriako erregia ;  
Botzik kita ezazu zure sor etchia.

7

Aita, zu izan zare ene saltzale,  
Anaie gehiena dihariren hartzale,  
Anaie artekua zamariz igaraile,  
Anaie tchipienia ene laguntzale.

8

Aita jouanen gira oro alkarreki,  
Etchera jina zira changri handireki,  
Bihotza kargaturik, begiak bustirik,  
Eta zure alaba toumban ehortzirik.

9

Ahizpa, zaza orai Salako leihora,  
Ipharra ala hegua denez jakitera;  
Ipharra balin bada goraintzi Salari,  
Ene korpitzaren cherka jin dadila sarri.

10

Atharratzeko zegniak berak arrapikatzen.  
Hanko jente gazteria beltzez beztitzen,  
Andre Santa Clara hantik partitzen,  
Haren peko zamaria urhez da zelatzen.

---

## XLVI

I

Dama gazte bat adoratzeko  
Hartutzen dut empeñua  
Gusturat denak ikhasi betza  
Pertsuak jartzerat noha  
Ustez seguro iduki eta

Eman det desengaňua  
Toki onean emplegatu det  
Lehembiziko kariňua.

2

Oren batian uste ez nuela  
Begietarat sorthu zen  
Fortuna onen bat datorre'akotz  
Neure bihotza poztu zen.  
Haren orduko arrazoinekin  
Sekulan ez zoit ahantztutzen  
Chit gustatua nago ni zutaz  
Ez zera konformatutzen.

3

Gainerat berriz bertze gauza bat  
Eskojitzeko oihala  
Esposatzeko trajia ere  
Berak egingo zirala.  
Ofizioa zigarrerian  
Leihorrian zeraukala  
Ni langilea izanez geroz  
Ongi biziko giñela.

4

Errepuesta eman nihoen  
Berak merezi bezala  
Zer gisetako galaia nintzen  
Lehen ero bazakiela  
Lana egiten kostumatua  
Ttiki eta gazte nintzela  
Ez mundu huntan zembeit bezala  
Tunantia eta alferra.

5

Kasu ttiki bat dela medio  
Izan degu mudantza  
Tampa handiko sariarekin  
Egin naizuen arrantza  
Kaballero handi horien ganik  
Dirua zuen esperantza  
Ni ondotikan postichutako  
Tontua izan banintza.

6

Azkenerako erreumatia  
Nobijuaren despegira  
Mundu guzian zabaldu diten  
Orai imprimatu dira  
Bilbaotikan ethorria zen  
Donostiako herrirat  
Jendiak farra egingo luke  
Jarriez geroz begira  
Bortz zentimetan nahi dituenak hartu,  
Komedi pollitak dira.

---

XLVII

**ZALDI BATEN BIZITZA**

1

Horra zei berso kale  
Garbitzaleari,  
Zeña bere izenez  
Dan José María  
Erreza lezazkike

Hiru Ave Mari.

Indarra ethortzeko  
Zaldi zuriari  
Animali hori  
Urriki zait nerí  
Falta du ugari

Egoteko guri  
Kartoiaquin egiña  
Dala dirudi.

2

Goizero behar dio  
Eraso lanari  
Zibiñak bildu arte  
Erri danari  
Berriz ere obeto  
Bizi ez danari  
Ez naiz chanchaz ari  
Nabarbenduko zaizka  
Ezurrak ugari  
Eta José Mari  
Zaldi gaizoari  
Nai aña janari  
Eman zaiozu ea  
Jartzen da lodi.

3

Dago eskeletuen  
Ichurak harturik,  
Diña jan ezak daka  
Horrela galdurik  
Nola ez da egongo  
Oso argaldurik,  
Irukitzan badute  
Askotan barurik?  
Zaldi horri nik  
Ez det esperorik  
Ezer ikhusterik

Ezurrak besterik  
Ez dut beintzat izango  
Odol golperik.

4

Lana sobra du bañan  
Janaria falta  
Urrikigarria da  
Dakarren planta  
Gaizoak ez lezake  
Luzaro aguanta  
Flakiarekin ezin  
Mugitu du anka  
Pentzu guchi jan ta  
Kalean giraka  
Gaizki bizi da ta  
Indarrik ez daka  
Ezin karraiatu du  
Karro bat kaka.

5

Munduan ez liteke  
Zaldirik argitu  
Duenik horrek aña  
Pena sufritu  
Biotzik gogorrena  
Lezake kupitu  
Ez du zartzera charra  
Gaizoak achitu  
Pausua nagitu  
Ezin da mugitu,  
Zaldi horrek ditu

Zazpi espiritu  
Bestela bizirikan  
Ezin gelditu.

6

Giza gaizoaz danak  
Pena artzazute  
Baldin biotz biguñak  
Badituzute;  
Asi sor egunetik.

Eta orain arte  
Zerbitzua egin du  
Errian bastante  
Igande ta aste  
Jajarekin neste  
Makiñabat urthe  
Pasa dizkitzute  
Orain erretirua  
Merezi luke.

---

XLVIII

**EZPELETA HERRIAN**

1

Ezpeleta herrian, ostatu batian,  
Gerthatu izan naiz bazkari batian,  
Uste gabian, laur lagunetan;  
Etchek' anderia bere lanetan,  
Espantuia franko bere saltsetan,  
Ageriko da gero obretan.

2

Etchek' anderia goizik jeiki zen;  
Zortzi orenetan suia hila zen,  
Haragia 're bucherian zen;  
Hamek' orenetan garburen sartzen,  
Eguerditan bazkaria prest zen;  
Manera onaz zopa on bat zen.

3

Zopa jan eta haragi hori

Ekharry dauku egosi berri.  
Begiratu eta egin neron irri;  
Pochi pochi bat eman zautan niri.  
Zer jenero zen etzen ageri,  
Mamia guti, hezurra handi.

4

Arnoa zuten Bordalekotik,  
Edo bertzela taula zokhotik  
Agollatua ongi uretik;  
Edan dezagun beraz gogotik,  
Horditziaren beldurra gatik,  
Horrek ez gaitik joko burutik.

5

Zalhū dabila zerbitzaria,  
Saltsa bat badila egin berria  
Nahi dugunez haren erdia;  
Ezin dezagun beraz guardia.  
Saltsa eztela egin berria,  
Bezperakua, mintzen hasia.

6

Galdetzen derogu zerbitzariari  
Ekhar dezagun erraki hori  
Ongi errerik, gizenean guri.  
Begiratu eta egin neron irri,  
Zikhiruaren fama tzarrari;  
Mehe zen bainan etzen ernari.

7

Kafe on batek oro ahanzten  
Galdetu orduko berehala prest zen.

Ura doidoia pegarrian zen ;  
Hasi zen beraz noizbeit ekhartzen  
Ura doidoia hasia beltcten :  
Kiker' erdi bat phurruska bazen.

---

XLIX

LES BONS APOTRES

1

Tan, tan, tan, tan  
Rapetaplan !  
Artzain zaharrak tafarnan :  
Hordi gira (*bis*).  
Ez, ez gira (*bis*).  
Basoak, detzagun bira ! (*bis*)  
Johoho ! johoho ! johoho ! (*bis*)  
Basoak detzagun bira ! (*bis*)

2

Tan, tan, tan, tan.  
Rapetaplan !  
Nork jotzen derauku borthan ?  
Beharbada (*bis*)  
Otsoa hor da (*bis*)  
Nihor ez gaiten athera (*bis*)  
Johoho ! johoho ! johoho ! (*bis*)  
Nihor ez gaiten athera ! (*bis*)

3

Tan, tan, tan, tan.  
Rapetaplan !

Uria harri karrikan :

Gauden hemen (*bis*)

Arno hunen (*bis*)

Gostu onean edaten (*bis*)

Johoho! johoho! johoho! (*bis*)

Gostu onean edaten! (*bis*)

4

Tan, tan, tan, tan,

Rapetaplan?

Babazuza tarrapatan!

Dugun edan (*bis*)

Hamarretan (*bis*);

Aberats gira gau huntan! (*bis*)

Johoho! johoho! johoho! (*bis*)

Aberats gira gau huntan (*bis*)

5

Tan, tan, tan, tan,

Rapetaplan!

Ez dut minik sabelean!

Nahi nuke (*bis*)

Ehun urthe (*bis*)

Hola egon banindaite! (*bis*)

Johoho! johoho! johoho! (*bis*)

Hola egon banindaite (*bis*)

6

Tan, tan, tan, tan,

Rapetaplan!

Arnorik ez da botoilan

Ostalera, (*bis*)

Ez ikhara; (*bis*)

Arnoko bethi sos bada (*bis*)  
Johoho! johoho! johoho! (*bis*)  
Arnoko bethi sos bada! (*bis*)

7

Tan, tan, tan, tan,  
Rapetaplan!  
Zer othe dut begietan?  
Non da bortha? (*bis*)  
Airatu da (*bis*)  
Mahaina dantzan dabila! (*bis*)  
Johoho! johoho! johoho! (*bis*)  
Mahaina dantzan dabila! (*bis*)

8

Tan, tan, tan, tan,  
Rapetaplan!  
Zangoek amor bidean!  
Hanketan, min! (*bis*)  
Gaizo Martin! (*bis*)  
Urhatsik ez dirok egin! (*bis*)  
Johoho! johoho! johoho! (*bis*)  
Urhatsik ez dirok egin! (*bis*)

9

Tan, tan, tan, tan,  
Rapetaplan!  
Eri tchar naiz hiltzekotan!  
Sendo nintzan, (*bis*)  
Aski edan (*bis*)  
Izan banu gau hunetan! (*bis*)  
Johoho! johoho! johoho! (*bis*)  
Aski banu edan gau hunetan! (*bis*)

L

## ARTZAINGOA

Ez naiz handietarik gizonen artean,  
Hurran bakharrik nago mendien gainean ;  
Arthaldetto bat daukat han nere menean,  
Harekin bizi bainaiz gostu ederrean.

Asko dira menturaz nitaz urrikaltzen  
Atsegin zoro batzuz ez bainaiz gozatzen.  
Urrikari hek dauzkat orai eta lehen ;  
Bakearen gozoa ez dakite zer den !

Mundupean duenak higatzen bizia  
Ardura du berekin izaten hauzia.  
Bakea jendetarik urrun igorria,  
Handik khendurik dago mendian jarria.

Artizarra zeruan agertzen denean,  
Goiti noha ni ere harekin batean :  
Sartzera egiten du ilhun nabarrean,  
Ni ere itzultzen naiz omore onean.

Choriak eder dira khantari mendian ;  
Begira egoten naiz hekier lorian.  
Bazter guzietarik khantuz daudenean,  
Ni nola nindagoke ilhun bihotzean.

Menditik zoin den eder goizetan argia !  
Bozkariotan nago maiz hari goardia.  
Ohepean hagoen, hiritar nagia,  
Nola ezagut dirok nik dudan zoria ?

Menditik dudanean begia hedatzen,  
Jainkoak eman onak orotan ikhusten,  
Bihotza haren gana dut bozik altchatzen,  
Gure Aita onari eskerrak bihurtzen.

Tratulariak dohaz nekhatuz bidean,  
Zembat amets ederrez alhatuz gogoan.  
Aldiz artzaina dago mendi urdinean.  
Deskantsuz lo eginez etchola tcharrean.

Ethorri da negua, harekin elhurra;  
Zelhaian eginen dut egoitza laburra  
Ez daiat adiorik egiten etchola?  
Nihondik ez naiteke hi gabe kontsola!

Negua joan-eta primadera hasten;  
Bazterrak oro dira belharrez bethetzen;  
Choriak oihanetik khantuz abiatzen.  
Bozkarioz artzaina mendirat igaiten.

Han dut nere gozoa, han nere bizia!  
Jainkoa da bakharrik han nere nausia!  
Bertzentzat diru, jan on, soineko ederrak!  
Niri bake gozoa! Jaunari eskerrak!

Nere adiskideak, orai naiz gelditzen,  
Hasi dudan bertsua hemen akhabatzen;  
Jainkoak osagarri eman dezazu en,  
Bihotzaren erditik othoitz dut egiten.

LI

## USO CHURIA,ERRAZU

Izar batek zerutik, kharitatez betherik,  
Gauaz ere argitzen du, bertze ororen gainetik;  
Dudatzen dut baduienetz mundu huntan parerik.

Izar haren begia, hain da charmagarria,  
Koloreak churi-gorri, perfetzonez bethia  
Eria-re senda liro haren begithartea.

Uso churia, errazu, norat joaiten ziren zu;  
Espainiako mendiak oro elhurrez bethiak ditutzu  
Gaurko zure ostatu gure etchean baduzu.

Ez nu izitzen elhurrak ez-eta gau ilhunak,  
Maitea gatik pasa nintzazke gauak eta egunak  
Gauak eta egunak, desertu eta oihanak.

---

LII

## ETCHEKO CHOKHOA

Orhiko choria Orhin bakhean da bizitzen;  
Bere larre-sasietan ez da hora unhatzen.  
Han zen sorthu, han handitu, han hari zen mai-  
[thatzen.]

Han, bere umen artean gozoki du kantatzen.

Urusa harek bezala egiten dakiena!

Orhin sorthu eta Orhin, gazte-zahartzen dena!

Aditzez baizen ez-daki zer den kampoko ona;  
Bainan aldiz dastatzen du etcheko zoriona.

Bego etcheko chokoa oraino nor-berari!  
Bego ait' amen etchola haurrik hazienari!  
Etchea bethi etchea da, zembat den itsusgarri;  
Kampoa bethi kampo da, zembat den edergarri.

Etchean pena guziak dirade konsolatzen;  
Etchean zauri miñenak noratbait-ere hersten  
Irriak, solas gozoak, non dirade han baizen,  
Gau-aldera familia denean bateratzen?

Familiako bizia zein zaren plazertsua!  
Zutaz gabetua dena zertaz da gabetua?  
Ume zurtza baten pare dabila herratua,  
Ezin bere bihotzaren aurkhituz sosegua!

Zembat urrikari dudan bizi dena kampoan!  
Bera da beretzateko mundu huntan osoan;  
Jendez da sethiatua eta da desertuan!  
Laguntza onik ez duke bere pagamenduan.

Etcheko tcharra hobe da ezenez atze ona;  
Atzeak ez du balio etchekorik tcharrena:  
Hori da alde orotan kurri duen errana;  
Bainan ongi aditzeko frogatu behar dena.

Nik segurik zinez dakit nolako den kampoa;  
Itchura hainitz du eta funts hainitz tcharrekoa.  
Etzaitela hari fida, leguna du mintzoa,  
Bainan gero sartzen dautzu ezten phozoatua.

Beraz guitarik bakhotcha etchean egon dadin!  
Orhin sorthu balimbada, egon dadiela Orhin!

Zertako hainbertze urhats zorionketa egin?  
Etchean du zoriona nork berak berarekin!!!

---

LIII

**EMAZTE EDALEA**

Munduan ikhusten da hainitz bizio,  
Hoberenetik ere deus ez balio;

Bainan halere

Ohituz geroz hartan, bertzeak bertze,  
Zor edo hartze,

Ezin arnega daite, arras hil arte (*bis*).

Emazte edalea da higuingarri;

Dabilan urhatsetan, hain hirrigarri  
Haren manera!

Zokhoz zokho batetik eta bertzena.

Sar et'athera :

Sabeletik ez hotza doha etchera (*bis*).

Flasko muthur luze bat, bethi gordea,  
Ostaturat badaki ongi bidea;

Balitz erraile

Edari churi gorri zemba suerte

Ahal lakike

Ibilirik, senharrak deus jakin gabe (*bis*).

Zaku bat mandatari, bihiz bethea,  
Irauten duen arte badu bakea;

Gero behar du

Ohe eta ahorrez egin merkatu.

Dohainik saldu;  
Senharra egin liro, ahalik balu! (*bis*)

Emazte edalea alferketari,  
Hauzorat joan-eta, berri-kondari,  
Egun erdiak,  
Senharra eta haurrak, landan guziak,  
Erdi goseak;  
Artha guti heietaz zintzur luzeak (*bis*).

Ama biziotsua, hire haurrentzat  
Mundurat sorthu hintzen, heien kaltentzat,  
Dudarik gabe.

Nork nahi dun har detzan etcheko andre.  
Ez egin gabe;

Beldurrez hi bezala, diren edale (*bis*).

Emazteki zoroa, hik zahartzean,  
Egoitzatik ez duken sarri etchean,  
Luza etziron,

Umekin ere ezin haiteke egon,  
Deusetan ez on;

Lehengo adichkidek ez nahi nehon (*bis*).

Bizi iraganari, ukho eginik,  
Sar beraz hire baithan orai beretik;

Othoitz Jainkoa,  
Izan ez hadiela, ez lehengoa,  
Ez hain flakoa;

Etchean emanen dun bake osoa (*bis*).

LIV

**MAITIA, NUN ZIRA?**

1

Maitia nun zira?  
Nik etzutut ikhusten,  
Ez berririk jakiten,  
Nurat galdu zira?  
Ala khambiatu da zure  
[deseiña?  
Hitzeman zereneitan,  
Ez behin, bai berritan,  
Enia zinela.

2

Ohikua nuzu;  
Enuzu khambiatu,  
Bihotzian beinin hartu  
Eta zu maithatu.  
Aita jeloskor batek  
[dizu kausatu :  
Zure ikhustetik,  
Gehiago mintzatzetik  
Hark nizu pribatu.

Aita jeloskorra!  
Zuk alaba igorri,  
Araiz ene ihesi,  
Komentu hartara!

Ar'eta ez ahal da sar-  
[thuren serora :  
Fede bera dugu,  
Alkarri eman tugu,  
Gauza segura da.

4

Zamariz iganik,  
Jin zazkit ikhustera.  
Ene kontsolatzena,  
Aitaren ichilik,  
Hogoi eta laur urthe  
[bazitit betherik :  
Urthe baten burian  
Nik eztiket ordian  
Aitaren acholik.

5

Alabarik diener  
Erranen diot orori :  
So'gidaziet eni,  
Beha en'erraner;  
Gaztetto direlarik un-  
[tsa diziplina ,  
Handitu direnian  
Berant date ordian,  
Nik badakit untsa.

LV

AINGERU BATI

1

Maite dut eta ezin erran  
Aingeru bati maite dudala  
Zeru garbiak arratsean  
Izarra maite duten bezalat  
Zer! ez da bada zorigaitza!  
Mintzatu nahi, ezin mintza?  
Non nahi naizen gogoan dut  
Gauaz, egunaz, aingeru hori;  
Urrundik frango chede badut,  
Bainan hurbildik ezin atrebi!  
Hurbildu-eta ez naiteke atrebi!

2

Igande bat zen ikhustean  
Nik aingerua lehen aldikotz;  
Haren itchura bihotzean  
Geroztik hor dut eta bethikotz!  
Meza zen hari aldarean...  
Belhauniko zen othoitzean...  
Gero behatuz zeruari  
Agur ehti bat egorri zuen  
Aingeru bere laguneri...  
Ordu beretik maithatu nuen!  
Orduan maithatu nuen!  
Ondikotz! nik orduan maithatxu nuen!

3

Ez! gehiago mundu huntan  
Esperantzarik ez da neretzat?  
Hura hain gora! ni herrestan!  
Nola gaitezke gu elgarrentzat!  
Lurra gizonen da lekhua,  
Aingeruena da zerua.  
Zertako zare zu zerutik  
Lurrera jautsi, nere maitea?  
Eta zertako bihotzetik  
Hola dautazu khendu bakhea?  
Zertako, nere maitea,  
Khendu dautazu bihotzetik bakhea?

4

Uri ondotik hosto-pian  
Ikharan dago gaicho lantchurda :  
Haize gachtoak ematean  
Lohi beltzerat eror beldur da ;  
Maitea zutaz orhoitzean  
Beldur bera dut bihotzean ;  
Garbia zare, bai! behautzu  
Lohirat eror, zuk, aingerua!

ELISSANBURU.

---

LVI

**ESKUALDUN AMERIKETARAT DOHANA**

1

Nahi nuen kantatu	Ene baitan da phiztu?
Alegera partitu,	Ene bihotza, nola,
Bainan zer bihotz mina	Nola daite kontsola!

2	Norat hoa untzia Norat untziz Frantzia Norat hola daramak Orai ene bizia? Ene bihotza, nola, etc.	Hiltzea duk enetzat Hi gabe bizitza ! Ene bihotza, nola, etc.  5
3	Eskual-herrian sortzen Ameriketan hiltzen, Ai ! zer zorte dorpeha Orai dutan bilhatzen ! Ene bihotza, nola, etc.	Adios, ama maite, Galtzen zaitut zu ere ; Ni zu ganik urrunduz Zembat biziko zare ? Ene bihotza, nola, etc.
4	Eskual-herri maitea, Herri pare gabea,	6 Egin dudan botua, Baldin bethetzen bada, Laster itzuliko naiz, Ama ona, zure gana. Ene mina, bertzela. Nola daite kontsola ?

---

LVII

**SANTSIN**

AIREA : *Jakintsunen arabera...*

1

Igande ilhuntze batez  
Etche alde zohala.  
Erroz gora erori zen  
Santsin zabal-zabala.  
Izarrik nihon ez ditu  
Ikhusi ban bezala.

Ilhargia ferekatuz  
Gan zen gan berehala.

2

Echker eskuin, andarkoka  
Santsin abiatzen da,  
Alabainan, mozkortua  
Betbetañ ezin senda!  
« Ez nezakala, zioen  
« Gau ilhuna, izenda,  
« Hi bahintut salatari,  
« Bahuke to zer konda! »

3

Badaki ichilik dela  
Egonen gau ilhuna.  
Bainan, bainan, changoari  
Maiz nausitzen chalduna!  
Han dago, han, Santsinen  
Goait, Mari-Martin papuna!  
« Hura balakatzen baduk,  
« Santsin, hi, zer gizona. »

4

Etchera 'ta andreari  
Erraten omen dio :  
« Eroriko hunek ez din  
« Samurtzea balio !  
« Erran no, Santsinen gaitza  
« Noiz gosta zain kario?  
« Bethi badie, ostattutan,  
« Merke botikario? »

5

« Hordi tzar, gizon higuina,  
« Urrun hikit bichtatik,  
« Ochala ez bahintz jalgi  
« Putzuaren zolatik  
« Zer sofriarazten dukan.  
« Jainko Jaunak bazakik !  
« Ai ! nola bada gate  
« Hau sartu nikan lephotik ! »

6

Goiz aldera, ez errechki  
Jeiki zen bada Santsin,  
Ziolarik lagunari :  
« Atch ! hementche dinat min ! »  
Hunek aldiz : « Sendatzeko  
« Hauche behar duk egin ;  
« Enekin bezein maiz hadi  
« Samur botoilarekin. »

7

« Ichilik egonen hiza,  
« Emazteki ergela !  
« Ni bezen senhar gozorik  
« Hots badakin ez dela.  
« Hanka debru hunek zatan  
« Galdatzen ur ephela ;  
« Hik ere aise uzten dun  
« Ur hotzean igela. »

8

Santsin gaizoaren ganat  
Ethorri zen barbera,

Eta zion, han nombeitik.  
Elhorrl bat athera.  
Ez dakit egin zioten  
Larderia sobera,  
Bethi Santsin gelditu zen  
Lehengo Santsin bera.

9

Santsin hunen iduriko  
Zembat den bazterretan!  
Zembat nigar, eskatima,  
Igande arratsetan!  
Gazte danik dagoena  
Berant ostatuetan,  
Zahartzean izanen da  
Bethi trapu tzarretan.

HARRAZPI.

---

LVIII

**ORAİKO NESKATCHA BATZU**

Begientzat bakharrik badire loreak;  
Dire usainik gabe, fruiturik gabeak,  
Ordean zein dituzten eder koloreak!  
Koloretik jujatuz, bertzen erregeak.

Haukien iduriko ditugu ikhusten  
Neskatcha gazte hainitz orai distiratzen;  
Hauk beren itchuratik duztenak jujatzen  
Ez dirade, chimpleak, guti enganatzen.

Landetan sorthurikan nahiz diren asko,  
Ez dire hek eginak lanean hartzeko :  
Bulharrak duzte flako ; larrua churichko ;  
Ez dute kuraiarik kampo-lanetako.

Barnean daude beraz, lanetik ihesi ;  
Burhasoek beharko heien phartez hari.  
Aberats gutizian, aise nahi bizi ;  
Zer damua ez duten errentarik aski !

Balakite bederen barneko lanetan,  
Jatera preparatzen bere tenoretan  
Zembait pondu egiten philda zaharretan,  
Ez litazke ez-deusak gure begietan.

Ehailetan ez dute sinreste phorrorik ;  
Ez dute hunkituko hartakotz kilorik ?  
Khutcha zahar guziak daudezela hutsik !  
Eginen da oraino, athonra hertsirik.

Errentak ttipi, bainan handi gutiziak,  
Aberatsen lerroan agertu nahiak,  
Beztimenda berriez nihoiz ez asiak ;  
Aitaren izerden zer chukhagarriak !

Ikhusatze gure printzes berriak,  
Urhatsak chehe eta ezpainak hertiak.  
Oso-osoak gaten, iduri pampinak.  
Pobre diren errazu ala ba aberatsak.

Badohazi bestarat begia arinik,  
Arinago bihotza, gorputza chuchenik ;  
Orai ez dute senti sabeleko minik,  
Bulharrentzat batere ez dute beldurrik !

Iduritzen zaiote, plazan direnean,  
Denen begi samurrak duztela gainean;  
Destenorean hantche daudezi lorian,  
Gau ilhunak ez ditu lotsatzen bidean!

Hauki lotzera hoan, muthiko gaztea,  
Egik kontu ez ditek baizen kolorea,  
On baten bilhatzeko harrezak ephea,  
Baldin gogoan baduk ura izatea!

Andreak, ez gaitzetsi hitz bat aditzean,  
Loretto bat dautzuet ezartzen eskuan,  
Gaztean dabilana urhats holakotan  
Labur higatuko da pena-ahalketan.

---

LIX

**UMEK BURHASOERI URTHE ON ETA OHORE!**

AIREA : *Ikhusten duzu goizean*

1

Sorthu gintuzu holetan  
Gu iragan demboretan,  
Gero ezarri trochetan.

Asko aldiz, ai, ama maiteak  
Mantenatu bulharretan,  
Atchikirik besoetan,  
Aitak ere belhaunetan  
Gero laster haztekotan.

2

Hazi gintuzu gazterik,  
Aita-ameri gostarik,

Ez, hortaz ez dut dudarik.  
Ez dugu aurkhitzen guk heiekin  
Bizi egunez hoberik  
Ez eta heien parerik  
Nahiz ez ginduen mamarik.  
Zeren garen pobretarik.

3

Hortakotz diot egia  
Zeren den gauza argia  
Guretzat dela legia,  
Aste guziez lanean ariz  
Irabazteko ogia,  
Begiratuz zuhurtzia  
Iragaiteko bizia  
Et'ait'amez orhoitzia.

4

Ait'amez gare orhoitzen ,  
Eta begiak bustitzen  
Eztugulakotz aurkhitzen  
Gur'haurtasunean bazakiten  
Hek gure ongi altchatzen  
Etsemplu onen emaiten  
Gutaz ziren urrikaltzen .  
Eskerrak deztegu bihurtzen.

5

Aita amek pena asko  
Jasan dute guretako  
Bai gure ongi hazteko  
Urthe on deugu desiratzen'ta  
Jainko Jaunak laguntzeko

Osasun on emaiteko  
Luzaz bizi-arazteko  
Gero zerauz gozatzeko.

6

Ama Birjina maitea,  
Zato gure laguntzera,  
Baitugu behar ordua;  
Bai mundu huntan segi dezagun  
Zeruretako bidea  
Othoiztuz zure semea  
Hark dezagun onhestea  
Eiten diogun galdea.

7

Zeruko Jainko handia,  
Gutaz miserikordia,  
Atchik guri berthutia.  
Aita ameri eta umeri  
Zuk emaguzu grazia  
Uruski gure bizia  
Iragaiteko guzia,  
Gero Zeruko loria

MAÑECH ETCHAMENDY.

---

LX

LAMENTATIONS D'UN BASQUE  
A MONTEVIDEO

SUR L'AIR : *Ichtudiantina nihon parerikez duzu*  
*Khambo gaineko inguru zoragarrian*  
*Hazi izan naiz bizi gozo batian*

Ait'ama onen hegian ;  
Maitia nuen herrian ;  
Orai Gautchuen erdian,  
Bizi naiz ezerian.

Gizon bat jinik herrira Montebideotik,  
Dena espantu, ezin kasa etchetik ;  
Ordutik, jaun haren ganik,  
Airatu ginengen herritik,  
Hain ongi ginengen tokitik,  
Zoro haren ondotik.

Bortz aste bethe egotu ginengen Pasayan,  
Jaunak badaki zer pairatu dugun han !  
Sosik-ez, ez izan zer jan,  
Nolazbait bizi pidayan,  
Finean sarthu untzian,  
Nigar chortak begian.

Montebideorat nozbait ere ginengen heldu ;  
Gure begiak ordu hartan argitu ?  
Ezagun frango aurkitu ;  
Gu ikhus-eta harritu ;  
Nola garen enganatu  
Hemen dugu frogatu.

Montebideon, guretzat nihon lanik ez,  
Farnak bai handi, bainan oro gezurrez !  
Urrungo eltzeak urhez,  
Etcherat orduko lurrez  
Zoratuak hitz ederrez,  
Hemen gaude nigarrez.

Erran dezaket, frogatzen baitut ongi nik,

Montebideon deusik ez dela onik,  
Ez izan hemengo minik.  
Zaude hor arthoa janik!  
Hemen ez da Eskualdunik  
Bortz sos bere duenik.

Itsasoari besoak ditu zabaltzen,  
Eskual-herriaz oihuz diot galdetzen!  
Mundarrain diot aiphatzen,  
Larrunez naio mintzatzen,  
Gau egun, hetaz pentsatzen,  
Heien minez naiz hiltzen!

Mundarrain-mendi, nihondik ezin naitake,  
Bizi-munduan zu maiz aiphatu gabe.  
Hor diren ithurri lore  
Guziez órroitzen gare  
Hemen hiltzen banaiz-ere  
Azken hatsa nik zure.

Bethi auhenka... oi han dolore samina!  
Urthua nago, dena hezur egina;  
Bortz aldiz egin dut zina.  
Kantatuz *super flumina*  
Sekulan ez ahanzteko  
Eskual-herriko mina.

Oi aski ezin prezatuzko Eskual-herri,  
Bizi naizeno ene haspenak zuri!  
Mihia aho gangari  
Lothua goldi beit niri,  
Ni sekulan banindedi  
Zu maithatzetik geldit

Eskual-herria, adios aphur bateko!  
Sekulan bethi zutaz dut pensatuko;  
Jaunari dut eskatuko.  
Graziaz fagoratzeko,  
Lur maite, lur saindu hortan  
Biziaren uzteko!

---

LXI

**SENHAR-EMAZTEAK**

AIREA : *Iruten hari nuzu*

Ene hauzotegian bi senhar emazte  
Bakean bizi dira hasarratu arte  
Goardia elgarrekin (*berriz*) behin samurtzetik  
Heien chuchentzaileak lan ona behar dik!  
Lehenik intzirinak, gero deihadarka;  
Gero berriz eskainka, azkenekotz joka;  
Horra zer bizi modu (*berriz*) duten maiz segi-  
Dudarik gabe gostu diote kausitzen. [tzen.  
Gizonari on zaio zorta bat gorritik,  
Emazteari berriz ttotta bat horitik,  
Emaztea ichilka (*berriz*) senharra haltoki,  
Bakhotcha bere alde dabilta abilki.  
Ostatutik lekora, bapo eta eder,  
Senharra ez dadila sukalderat ager!  
Goardia eman bezo (*berriz*) bere andreari,  
Ttottaren ondorio omore tcharrari.  
« Gizon etche galgarri, arno edalea.  
« Ahalke behar huke hola bizitzea!

- « Haizen bezalakoa (*berriz*) arraila goizetik  
« Ohakit, higuin tzarra, begien bichtatik.
- « — Nere andre gaichoa, ez bada hasarra!  
« Hi bezalako baten badinat beharra  
« Emazte baliosa (*berriz*), eztia, ichila  
« Holako bakhar batek balio-tin mila!
- « — Gizon alfer-tzar, gormant, zikin itsusia!  
« Aspaldian nauk hitaz asetzen hasia!  
« Bethi gerla gorria (*berriz*) sekulan bakerik?  
« Ifernuan bide-duk hi baino hoberik!
- « — Othoi, ago ichilik, ene emaztea!  
« Indan-bai, laster gero biarten bakea!  
« Zer nahi dun enekin (*berriz*) gerla irabazi?  
« Lehen ere badakin nola hautan hezi? »

Emazteak orduan hartzen du erkhatza  
Eta chiminiatik gizonak laratza  
Batek uma-ahala (*berriz*) bertzeak; ai! ai! ai!  
Oi zen eder guduan holako bi etsai!

Eltze, zartain, gathelu, oro nahasteka,  
Lurrerat arthikiak dabilta jauzteka,  
Goaten naiz jaun-andre (*berriz*) heien bakhetze-  
Umaturik hor naute igorri etchera. [ra.]

LXII

**ANDRIAK SENHARRARI KOPLAK**

AIREA : *Donostiako hirur damatcho*

1

Urthe hainitz oraino ez dela  
Eman zauzkiguten koplak  
Edari gocho zale giñela  
Emazteki eskualdunak (1).

2

Hirriz zabaldurik ziñagozten  
Plaza guzia bethea  
Gure berrien ongi aditzen  
Kontentik zagon jendea.

3

Pello zuk ere ba lauzkatzu  
Kopla zembeiten bideak  
Orai aditu behar ditutzu  
Guk bezain ongi zureak.

4

Igandetan bazoaz plazarat  
Nahi duzun arteraino  
Goizetik sarthua ostaturat  
Han zaude arratseraino.

- (1) Juana khentzatzu  
Asmu tzar horiek burutik  
Ez dugu gerla beharrik.

5

Eguna han deramazu aise  
Zure moltsakuen gostuz  
Jan eta edan ederki aise  
Atseginak ongi hartuz.

6

Mahain hartarik athera orduko  
Paretaketan zabiltza,  
Harek lagundurik atchikitzeko  
Berdintsu zure balentza.

7

Ardura bazabiltz merkatutan  
Eta tratu bide guthi  
Etcheratzen zaizkit gauerditan,  
Kasik hola zabiltza bethi.

8

Berandu ethortzen zinen bathez  
Gerthatua den afera :  
Ederki trumpatu zinen athez  
Ganik hauzoko etchera.

9

Ene kalakak kechatzen zaitu  
Huntan beraz lana bego  
Oro nik erran behar banitu  
Zer ez nuken errateko.

10

Ea, ea  
Ai zer senharra (*bis*).

Juanak arrozoina du (*bis*)  
Hobeago izanen zen  
Senharrik hartu ez balu.

---

LXIII

**FRANTZIA ETA RUZIA**

EDO

**Bi Arrano hirur Beleri**

AIREA : *Andre Madalen*

1

Frantsez herria gure Jainkoak,  
Hire gainean zauzkak begiak!  
Orai artino hedatu dauzkik  
Ongi handiak zerutik!  
Hogoi bat urthe dituk iragan  
Bakhar bakharrik zoko batean  
Egun Frantzia, Norte aldetik  
Adichkideak jin zauzkik.

2

Gau ilhun eta beltzetik landa  
Izaiter huen azken kolpea,  
Belek ez nahiz jeik' hindadien  
Sendatzerik ez onhesten!  
Eta orduian gure herria  
Oino sobera ez azkartuia,  
Ikharan eta auhen minetan  
Hindagon hortzak karraskan!

3

Bainan Jainkoa hitaz orhoitu  
Hire bihotza orduian boztu :  
Ipharretikan jin zauku guri ;  
Launtza eta sokorri !  
Nort'Arranuak eman dik boza,  
Hegal kolpe bat gero guardia !  
Orai zatozte *hirur beleak*  
*Biga* gaituk nagusiak ?

4

Bi arranoak hirur beleri  
Bethi guardian beha dagozi  
Noiz igituko diren hirurak  
Noiz altchatuko banderak !  
Gure Jainkoa eta *Ruzia*  
Frantziarentzat balimbadira,  
Jin ahal daizte ifernutikan  
Beleak oste handian !

5

*Ruzia* beraz da gure alde  
Orduz geroztik beleak gorde ;  
Ordutik ere gure zauriak  
Oro dire estaliak !  
Nort'arranuak hek pherekatuz  
Hementik hora guk sustengatuz.  
Hegalak zabal airea gaude  
Sekulako adichkide !

6

Urthe gutiren barnean dugu  
Adichkidantza ongi finkatu,

Geroztik elgar dugu phestatu  
Bagoazi eskuz esku!  
Bien indarrak betan emanez  
Nor trufako da bi arranoez?  
Goraki diot : Biba Frantzia!  
Biba, bai, biba Ruzia!

ÑABARRO.

---

LXIV

**OHORE LABORANTZARI**

Munduan oi! zein eder den      )  
Ohorezko bizia;                    )      bis  
Guziz laborariaren  
Lanak irabazia.  
Hark du orai nola lehen  
Hazten mundu guzia.  
  
Laborantza, gauza handi  
Eta botheretsua!  
Hartan da lanean ari  
Jainkoaren eskua.  
Gizonaren eskuari  
Berma dadin lothua.  
  
Ez balitz laboraririk  
Hits lagozke bazterrak.  
Ez liro gauza handirik  
Eman alhor alferrak :  
Hiritarra, hik segurik  
Zer jan hezaken, errak.

Bizitzeko behar diren  
Gauza lehen lehenak,  
Bihi, fruitu, zer nahi den...  
Oilo, abere gizenak ;  
Jendeak laborarien  
Eskutik dituk denak.  
Orhoit gaiten arno hori,  
— Aihenaren odola, —  
Edatera nork orori  
Ematen duen hola.  
Jakin gabe ez da sori  
Edatea nihola.  
Laboraria, lanean,  
Egunaz da nekhatzen ;  
Bainan gero arratsean  
Familiaz gozatzen  
Gabaz aise da ohean  
Goizeraino lokhartzen.  
Laborari etchetan den  
Hauk haur eder lerroa!  
Zangar lodi, gorphutz lerden,  
Larru garbi, sanoa ;  
Aita ama leialeen  
Ondorio gozoa.  
Igandez, Eskual-herrian  
Eder laboraria!  
Elizan kantaz lorian  
Plazan pilotaria :  
Chahartu 'ta jar-harrian  
Juje 'do chaharia,

Laborantzari ihesi  
Hambat seme alaba  
Ai ! ondikoz baitohazi  
Toki arrotzetara !  
Alhorrak larre 'ta sasi  
Hara han daiten bara.

ZALDUBY.

---

LXV

**ORAIKO NESKATCHAK**

AIREA : *Arkulo heldu da menditik.*

**ALABAK**

Ai ! ai ! ai ama ! burua min !  
Artho jorrarat gan ezin !

Josteko batzu nere gelan orai banintuzke behin;  
Bertzenaz ez dakit zer egin.

**AMAK**

Bai, nere haurra, bahuake  
Nahi badun izan bake :

Hire aitak ema-sabelaz-ez-din batere sinreste,  
Zertako hartu du emazte ?

**ALABAK**

Mankan, ama, othe da kafé ?  
Chortatto bat nahi nuke.

Khurrukaka nere sabela nihon ere ez dagoke;  
Laguntza zerbait behar luke.

AMAK

Bai, nere haurra, izanen dun,  
Kausi badezaket nihun,  
Agorrient ttantta bat ere chichari hiltzeko on-  
Beharra badut nik ere egun. [dun,

ALABAK

• Herriko besta hemen dugu  
Beharko naiz ahalketu!  
Soin berriaren egiteko aitak ez omen du diru  
Beharko dugu enganatu.

AMAK AITARI

Zein ilhun zauden Piarres;  
Zeren duzu kopeta beltz?

AITAK

Ai! Maria, diru galdea eta nik moltsan baterez;  
Etchea bethe dugu zorrez?

---

LXVI

**SARAKO IHESLIARREN KANTUAK**

Nora zoazte hor gaindi ardi nahasiak?  
Espainiara goazi, doi-doya biziak.  
Jauna ahantz bekitzu guk egin gaizkiak,  
Gosez hil ez gaitezen mendian guziak.  
  
Emazteak ikharan senharra bilhatzen  
Gizonak emaztea orori galdetzen  
« Zer egin zare Ama? non da ene aita? »  
Horra urragarri den haur gaichoен pleinta.

Etchelarren heldu ta, oi, gure lastima!  
Lurrean sartu zukan nork bere arima;  
Nihork ez du leihorrik ez norat anima;  
Zembat bagira bizi haimbertze bitima!

Koko beltzak ez gaitu segur urrikari.  
Chichpaz eskaintzen dio Frantses gizonari,  
Eskualdunak bakharrik demagu janhari.  
On eginaz, Jauna, zuk emozu sari.

Gure galgarri haizen, Martin Dulunia  
Bizirik yan darokuk bulhar-haragia  
Athon eta ikusak gure hagonia  
Hire baitan Jaunak sar dezan argia.

Zeruetako Jauna, barkha! barkha guri!  
Eta guri bezala egizu orori  
Barkhatu diozute zure etsayeri  
Halaber nahi dugu guk egin gureri.

Bainan bihur gaitzazu gure Elizara  
Ikus dezagun orok, ikhus gure Sara  
Begiz ikhus detzagun, batzuk haurrideak  
Zembaitek burhasoak eta orok etcheak :

Ez bazaitzu komeni mirakulu hori,  
Indar emozu othoi gure bihotzari  
Zure nahi saindura dadien sumeti  
Zure manamenduak iduk detzan bethi.

LXVII

**HALAERE**

*Errepika*

Halaere, halaere,  
Nik ez eskas deusere  
Halaere, halaere,  
Ez dut eskas deusere.

1

4

Ez naiz ni embachadore Behi ferra bat lurrean  
Dirurik ez dut batere Bazen bide bazterrean  
Pobre naiz bai nahi ere Emanik zaku barnean  
Zaku bat aski zaut nere Galdu dut gaur ilhun-  
Halaere... Halaere... [tzean.

2

5

Asto bat nuen eskutik Ongi nahi dut khondatu  
Tiratzen ezpain peko- Behin zer zautan ger-  
[tik  
Bizkarra hautsi erdi- Galtza berriak urratu  
[tik,  
Beha dago errekatik. Lapharrek phuska gel-  
Halaere... Halaere... [ditu.

6

Merkhaturat zaut be- Egiteko zembeit tratu  
[hartu  
Atzo izan dut fortuna Gizon batek nau trom-  
Goraintziño bat gizena [patu  
Dena hitz hutsez egina. Sobera nayo behatu.  
Halaere... Halaere... 7

7

Eman dut canna berria  
Mizpira baten adarra  
Ordainez izan zuhurra  
Denaren zango ma-  
Halaere... [khurra.

8

Khondu berri arratse-  
[tan  
Eskuko bortz erhietan  
Ez naiz erori zorretan  
Nahiz ez naizen hartze-  
Halaere... [tan.

5

Artho zurmindu jateko  
Gauaren iragaiteko  
Behatza jaki lekhuko  
Ez dut lanyer gizentze-  
Halaere... [ko.

10

Ene ezanta gogorra  
Azpitik taula gogorra  
Gainetik taula idorra  
Aise dut makhur biz-  
Halaere... [karra.

11

Haize jauna da sarthu-  
[rik  
Hamar zirripuetarik  
Sudur mokoa freskorik  
Ez nau emaiten phau-  
Halacere... [surik.

12

Ordeinoa egiteko  
Laur notari ez beharko  
Zaku bat duket uzteko  
Primarik ez da boztu-  
Halacere... [ko.

## LXVIII

### NAUSIA, MUTHILA ETA ERBIA

Behin muthilarekin  
nausi bat ari zen  
Larre zabal batean  
iratze phikatzen.  
Toki hora erbiez  
famatua baitzen  
Han ihizlari zenbait  
egun hartan bazen.

Bet betan tiro batzu  
hor dire aditu.  
Gure gizonek ere  
buruak goititu,  
Erbi bat heier buruz  
herrestan zen heldu,  
Gaichoak berehala  
indarra du galdu.

- Nausiak laster batez  
erbia harturik  
Ezpal baten pean du  
ezartzen gorderik  
Irri gozo batekin  
erten duelarik  
« Erbikiz aseko nuk  
muthil....., ni segu-  
[rik.....! »
- Muthilak bere baithan  
hitz hoik entzun eta,  
Zioen : « Jasta ere  
enetzat ez duka?  
Ai! merezi huke to,  
gantz handi gorma-  
Jabeak jin balite [ta...!  
eta gal baheza. »
- Hain sarri bi jaun ziren  
hetarat ethorri,  
Galdez eian erbi bat  
zutenez ikhusi.  
Ezetz zeien nausiak  
murritz ihardetsi,  
Eta bere lanari  
loihu zen zorrozkia.
- Muthilak aldiz kheinu  
ezpalen aldera  
Salhatzeko bezala  
han zerbait bazela,  
Jaun heiek hatzemanik  
erbia horrela,  
Jotzen dute nausia  
lihoa bezala... !
- Pasez erdi hantua  
nigarrez utzirik,  
Ihizlariak urrun  
bazoazilarik ;  
Muthilak erten dio  
irriz dagolarik :  
Nausia hartu tuzu  
zanpak..., zuk segu-  
[rik... !
- Egintza hunek dauku  
ongi erakusten,  
Nola garen lur huntan  
elgarren behartzen.  
Zorionean bertzez  
ez dena orhoitzen,  
Zorigaitzean lagun  
guti du izaiten.

A. AINTCIBURE, *Zabaltzarra*.

LXIX

AINGERUA ETA HAURRA

1

Aingeru bat jeutsirik  
Zerutik lurrera;  
Sehaska bati zagon  
Arraiki begira.

Haren barnean mirail  
Batean bezala  
Haur batean ikhusten  
Zuen ber'itchura.

2

Aingeruak aphalik  
Hau dio erasi :  
— « Ni iduri haur ona  
Zer haiz hemen bizi?  
Haugi zerurat laster  
Enekin ihesi.  
Han gituzkek gu biak  
Milaka hobeki. »

3

Hura duk dohatsuuen  
Lekhu hautatua,  
Atseginez arima  
Duk pulunpatua,  
Zoriona duk choilki  
Han pairatzekua,  
Eta ongi izana  
Bethierekua.

4

Hemen bizitzen bahintz  
Laster hiretako  
Atsegabea huke  
Gduuan artzeko  
Egun bat jin balakik  
Bozkariatzeko,  
Doloretan hinteke  
Biharamuneko.

5

Hire kopeta lagno  
Thonarik gabia  
Zertako nahi gabez  
Laiteke histia  
Ai! hire begi ezti  
Inozent garbia.  
Zertako nigar minez  
Laite hondatia.

6

Ez ez zerurat hou hi  
Deitzen zorionak  
Hura ez dik balio  
Mundu hunek denak  
Lur huntan pairatzeko  
Hik hituen minak  
Orai danik barkhatzen  
Dauzkik Jainko onak.

7

Etche huntan ez beza  
Nehork egin nigar.  
Nola hire sortzeak  
Eman baitzeien khar,  
Zorion bera deyek  
Orai utzi behar.  
Bai hala dezatela  
Hire galtza har.

8

Gutiago ez beza  
Nehork har dolurik  
Ez dezala seinala  
Deusek hil herrik  
Hi bezala haur gazte  
Johan direlarik  
Azken eguna dukek  
Hemen ederrenik.

9

Bere hegala churiez  
Area joz legun  
Aingerua badoha  
Zeru alde urrun  
Bertze bat baderama  
Berekilan lagun  
Gaicho ama maitea....!  
Hire haurra hil dun.

---

LXX

OILOA ETA MIRUA

AIREA : *M. de la Palisse*

*Errepika*

Lauda zagun lauda  
Oilo-ama gaichoa;  
Lauda zagun lauda  
Ama egiazkoa.

1		7
Oilo <b>batek</b> umeak Bazituen berekin Hegalpean gordeak Ahalaz artharekin.]		Miruak ihardesten Egarritua nago ; Odola dut edaten, Zuena nahiago.
2		8
Haurrak gosetu zaizko, Norat egin ez jakin, Laster hetaratzeko, Mokoan bazkarekin.		Behar baduk odola, Oilo-odol garbia, Erranen dauiat nola Hil hire egarria.
3		9
Doha oilo gaichoa Bihotz minez hartua Familia osoa Ohatzean bildua.		Hire moko zorrotza Sar bihotzean niri ; Egin ase bat gaitza. Bainan deus haurreri.
4		10
Betan etsai gaichtoa Yausten zaio mirua ; Oi ! ezin bertzezkoa Ama hunen gudua.		Ichildu da doidoia, Hor dohako gainerat Oiloari etsaia. . Biziaren khentzerat.
5		11
Umeen auhen-mina Aditu dueneko Airez-aire da jina Hekien salbatzeko.		Moko eta ezproina Sarturik bihotzean, Ase da gaichtagina Amaren odolean.
6		12
Oihuka : gaichtagina Hatsa dautak khendu- Halere nik fin-fina [ko. Ohatzea zainduko.		Hire pareko Satan, Miru gaichto debrua Zorrotz aztaparretan Funditzen dik mundua.

13

Ume hekien pare,  
Aithor zazu egia;  
Zu, gizona, zu zare  
Odolaz erosia.

14

Oilo-ama maitea;  
Da Jesus gure Jauna;  
Guretako hiltzea  
Yasan izan duena.

15

Ifernuko miruak,  
Parabisu-lurrean,  
Lehen bi burhasoak  
Eman zorigaitzean.

16

Galduak ikhusirik  
Ama Salbatzaileak,  
Odola ichuririk,  
Begiratu umeak.

CHALBADOR.

---

LXXI

**ERIA EZAGUTZAZ BETHEA  
ERRECHINOLETARENTZAT**

Kantarien errege!  
Hire kantatzeko,  
Gai denik nor daiteke  
Hitaz beraz kampo!  
Geroztik itsumendu  
Zerbait othe dut nik?  
Ez, ezkertiak ez du  
Neurritzen indarrik.

Modestiaz bethea,  
Gauaz duk kantatzen,  
Unhaturik jendea  
Lo denean jartzen.

Hik uste duk bakharrik  
Haizel'atzarria;  
Erne zagok hargatik  
Khechu den eria.

Bai, erne zagok eta  
Oi ! ohatze pean !  
Sasitik hire kanta  
Hasten dukanean,  
Ordutik ene minak  
Zaizkidak ichiltzen,  
Eta gau luzeenak  
Labur iduritzen.

Maiteaz orhoiturik,  
Hago hasperenez,  
Hurbil izanagatik.  
Gauaz ikhusten ez,  
Ai! nahiz agian hiri  
Lagun itzalia.  
Kanta kantazak bethi,  
Ez ahantz eria.

Batzuetan gorago  
Duk altchatzen boza,  
Orduan urrunago  
Duk senti espresa :  
Oi ! apha!, berdin gora,  
Zoin den hunkigarri !  
Maiz zohak bihotzera  
Handik denak jalgi.

Zertako primaderak  
Ez iraun bethiko !  
Iphar gocho, loreak,  
Bakharrik lekhuko !  
Laster (zorigaitzean !)  
Demboraren ihes,  
Ganen haiz ni ohean  
Utzirik nigarrez.  
  
Adios ! bizi banaiz,  
Heldu den urthean,  
Othoi phausatuko haiz  
Ohiko tokian ;  
Lanjeretik han urrún  
Ta hurbil maitea,  
Kantatuko duk legun,  
Emadak fedea.

ERI BAT.

---

LXXII

**ENE CHARAMEAREN AUHEN MINAK**

Ator, ator, ene lira,  
Ene lagun leiala,  
Ator auhendatzera  
Ene zorte krudela :  
Orai athera-etzatzik  
Hire soinu saminak,  
Oiharzunari errotzik  
Hik ene bihotz minak.

Itsasoan ikhus-azu  
Untzi diruz bethea ;  
Orai artio egin du  
Bai uruski bidea :  
Uhinak dire apaltzen  
Haren ingurueta ;  
Haizeak ditu hampa-  
[tzen.  
Haren belak lorietan.

Hurbildua da porturat  
Lorios eta fier (supher);  
Horra non doan sartze-  
Aberats eta eder. [rat  
Jadanik plegatzen ditu  
Plegatzen bere belak  
Hala choriak hesten tu  
Kalatzean hegalkak.  
Kolpe kolpez altcha-  
[tzen da  
Furian chirimola;  
Untzia kostarat doha,  
Arrolaka dabillala :  
Hara hara non den hari  
Uhiñekin gduan;  
Galdu behar du tristeki  
Portuaren aldean...  
Egik auhen ene lira  
Egik minki auhena :  
Ni nauk ni nauk untzi  
[hura.  
Funditzerat nohana;  
Harat hunat arrolaka,  
Gaitzak bere besotan  
Nabillak pulumpaka  
Tombaren uhinetan.  
Oraño deusek bidean  
Ez ninduen trabatu;  
Ez dut ene itsasoan  
Arrokarik aurkhitu :

Helas! orai naizenean  
Porturat allegatu,  
Behar naiz ni uhinpean  
Uhinpean funditu.  
Chirriparen bazterrean  
Eder zagon zuhaitza;  
Erroak barna Iurrean,  
Aldaskaz aberatsa,  
Burua zaraman gora  
Fresko eta ostotsu :  
O zuhaitzaren ederra  
Hor bizi behar balu!  
Bere sor lekutik goi-  
[zean,  
Norbeitek du idoki;  
Atze lur idor hotzean;  
Bislandatu kruelki :  
Eta hasi da ihartzen  
Yadan arrats bereko;  
Bihar ez da on izanen  
Baizen su egiteko...  
Egik auhen ene Lira  
Egik minki auhena,  
Ni nauk ni nauk zuhaitz  
[hura.  
Ihartzera nohana :  
Helas! ene sor lurrean  
Eder indartsu nintzen;  
Landatua lur atzean  
Bihar ez niz izanen.

Harat, hunat hegaldar-	Seme batek utzi zuen
[tzen,	Bere ama emea,
Ikusazu paluma;	Utzi nahi ez baitzuten
Maiteki bazkabilhatzen	Amarekin semea;
Bere umentzat ama :	Haurrak zuen maite
Lotsarik beldurrik ga-	[ama
[be	Amak ere bai haurra;
Hor hemenka dabilan:	O dolore! o lastima
Ez du gogoan deus ere	Separatze gogorra :
Baizen bere familia.	Ama ganik urrun dela
Gaichoa zero goratik	Gaitzak hartu du seme
Miruak ikusi du ;	[hura
Haren aztaparretarik	Amaren zorte krudela
Nork oi nork kenduko	Haurra dohako hiltze-
[du :	[ra.
Jadan airean behera	Bere haurra galduz ge-
Tiroaren pareko,	[roz
Hegaztin tzarra gañera	Ama du hil beharko
Gaichoari dohako...	Ez bide da bizitzekotz
Egik auhen ene Lira	Haurra gabe biziko...
Egik minki auhena!	Egik auhen ene Lira
Ni nauk ni paluma hura	O dolore! o lastima!
Herioak naukana :	Ni nauk ni nauk seme
Arimentzat bazka bil-	[hura
[tzen	Ama hura ene ama :
Trankilki nabillala.	Ni bakarrik zahartzeko
Gaitzak niauk arrapa-	Esperantza nindian;
[tzen	Ez dik nihork altcha-
Sortzearen krudela!	[tuko
	Oi erortzen denean.

Jauna zuk ene bizia  
Hartu nahi baduzu,  
Zu zare ene nausia,  
Zurea da hartzazu :  
Gogotik dautzut ema-  
Jauna, ene arima ; [ten  
Zure eskutan dut uzten  
Hiltzerakoan ene ama.

LXXII

## **IRATIKO ARTZAINA**

AIRE HUNEN GAINEAN : *Ene andria ohian...*

- |   |   |
|---|---|
| 1   | Gauak zerua du urhez-<br>[tatzen]   |
| Garazi bortu gainean,<br>Iratiko oihanean,<br>Artzain bizi naiz uda<br>[denean,   | Ihintz gozoa ichurtzen !<br>Gora fagoa hedatzen !<br>Berotik nau gerizat-                   |
| Fagoaren gerizean,<br>Garazi bortu gainean,<br>Iratiko oihanean.                  | [tzen.  |
| 2   |   |
| Choragarri da bortua,<br>Elhurra bada urthua :<br>Bazka gizenen badut<br>[hautua, | Errege dugu jarria<br>Marro bulumba larria :<br>Utzirik dabil bozik her-<br>[ria,           |
| Uda negu urtatua,<br>Choragarri da bortua,<br>Elhurra bada urthua.                | Adar handi bihurria :<br>Errege dugu jarria<br>Marro bulumba larria.                        |
| 3   |   |
| Gora fagoa hedatzen !<br>Berotik nau gerizat-<br>[tzen :                          | Ardiak doaz ondotik,<br>Bulumba hasiz geroz-<br>[tik :<br>Berrchun goare ozen<br>[lephotik. |

Athera ziren herritik : Olha zaharren barne-  
Ardiak dohaz ondotik. [tan,  
Bulumba hasiz geroz- Koblak euria denetan.  
[tik. 9

6  
Otseho buru zabala.  
Handi duk hire ahala :  
Behar orduko baduk  
[uhala :  
Sendo burdiña bezala :  
Otseho, buru zabala,  
Handi duk hire ahala.

7  
Artzain bagare men-  
[dian,  
Saro zabalen erdian : 10  
Chirola dugu eguer-  
[dian :  
Pilota bere aldian :  
Artzain bagare men-  
[dian.  
Saro zabalen erdian.

8  
Olha zaharren barne-  
[tan  
Koblak, euria denetan,  
Errepikatzen dire arte [tan  
Bi eta hirur bozeta.

*Chantcho* nik maite  
'dudana  
Da chirolaz hoberena :  
Hurbilarazten du bere  
'gana  
*Garmin* artzain mo-  
[khorrena,  
Chantcho, nik maite  
'dudana

Da chirolaz hoberena.  
10  
Choratzen du arthaldea  
Uztera alhapidea;  
Otsoak ere galtzen go-  
!sea.  
Guganat hartzen che-  
!dea!  
Choratzen du arthaldea  
Uzterat alhapidea.

11  
Chirolak ditu oihanak  
Hasperenetan emanak  
Errekan dire jausten  
auhenak :

Chirolari daudezenak  
Chirolak ditu oihanak  
Hasperenetan emanak.

12

Bortuan sasoin ederra  
Chantchori diot esker-  
[ra.

Baderamaiot, neure be-  
[arra,

Mizpira baten adarra.

Bortuan sasoin ederra  
Chantchori diot esker-  
[ra.

13

Nik badut kaikulerria,  
Chantchok aurthen  
[ekharria.

Zurean lanthuz du ezar-  
[ria

Dantza khordan gazte-  
[ria :

Nik badut kaikuberria,  
Chantchok aurthen  
[ekharria.

14

Ibaia doha luzatuz,  
Itsas alderat handituz:  
Ithurburuan ahuspeka-  
[tuz,

Suntsitzen dut hurru-  
[patuz :

Ibaia doha luzatuz,  
Itsas alderat handituz.

15

Hedoia dathor airetan  
Su zimiztak erraietan!  
Ihortziria sarkhor de-

[netan,  
Zeinhatzen naiz ikha-  
[retan

Santa Barbara, ni l'ai-  
[than,

Balia zaizkit gau hun-  
[tan!

16

Jguzkia zauku sartzen.  
Belhauniko gare jar-

[tzen

Igandez *Credo* dugu  
[kantatzen,

Oihartzunek ihardes-

[ten!

Bihotzak diremugitzen

Eta begiak bustitzen.

17

'ria,  
Harrotzen but hausper-  
Aphaintzeko janharia,  
Chingar, esnckin, thalo  
'guria!

Lakhet dugun hazkur-  
'ria,

Ikhus artean herria,	19
Hoiche da gure bizia.	Bestak herrian badire,
18	Ezin goazke batere,
Zimaildurik iratzea,	Igortzen ditut hemen
Egiten dut ohatzea,	[halere]
Ez baita luze loharka-	Goraintzi choil hauk
tzea,	[nik ere :
Maiteekin mintzatzea!	Kantatzen ahal badire,
Egik, Otseho, zaintza,	Ez dut galdetzen deus
Otsoekin hizkatza!	[ere.]

M. LANDERRECHE,  
*Apheza.*

---

## LXXIV

### EMAZTEKI MOZKORRAK

AIREA : *Manuel tratuen astoa*

Zembeit hitz orai ditut bertsutan ezarri  
Laido egiteko andre mozkorreri.  
Gizonen begietan dire higuingarri  
Emak direlakotz arras arnoari.

Egartsu tzar hori  
Lothua emari  
Da auhendagarri!  
Eta izigarri!!!

Holako emak dire urrikalgarri!!!

Ikhusten tugu heltzen ostattuetarat,  
Urhats bezimbat beiratuz gibelerat.

Sartruak direnean barneko alderat,  
Ez ditazke atrebi hitzez galdatzerat,

Beira begitarat,  
Kurri alhaserat  
Kikera hartzerat.  
Guri gordetzerat

Opor debru hartan zer dohan triparat.

Hiru edo lau erri dituzte altchatzen,  
Ostalerarekin hola elgar aditzen,  
Amarru handirekin barrikarat heltzen  
Hurbildu direnean kokoriko jartzen.

Han tugu ikhusten  
Hurrup, hurrupatzen;  
Lau tan berratzen  
Dire atrebitzen  
Chutitu orduko lurrerat erortzen.

Berek bertzerenak dituzte iresten ;  
Zeruaz éta lurraz, bihotzez ukhatzen,  
Haurtcho gaichoez ere ez dire orhoitzen,  
Bethi edanarekin dire egarritzen !

Arras alfer jartzen,  
Ohoingoan lotzen,  
Lohi bilhakatzen.  
Hori da gerthatzen  
Sudurra kikeran maiz delakotz sartzen.

---

LXXXV  
SOLDADO LAGUNERI

AIRIA : *Oilanda gazte moko fier bat gure  
herrian badugu.*

1

Mila zortzi ehun eta lau hogoi eta hemeretzi garrena  
Frantziari zerbitzuaren errendatzen garena  
Penan direnen kontso!atzeko orai izan dut ordena  
Nahiz ez den ene gradua ofizioan gorena.

2

Zortheak deithu izan gaitu beraz adichkide onak.  
Erresumaren zerbitzuko oro elgarren lagunak  
Eta laster anaia gare oi guziz Eskualdunak  
Aberats ala pobre izanik elgarrez estimu onak.

3

Chuberotik, Laphurditik, eta Bachenabarretik,  
Etherri izan gira hunat urrun Eskual-herritik  
Zer ikhusi behar othe dugun asko gogoeta eginik  
Bitez berri bat hasten baitugu hemen khausitz  
[geroztik.

4

Eskual-herrian Libertatian eder zen gure loria  
Nun aurkhitzen ahal othe da zorion bat hobia?  
Hemen aldiz giltzen azpira maiz komplimendu  
[garbia.  
Gure esklabotasunaz dute gati miserikordia.

Eskual-herrian bezala hemen ez dugu khausituko  
Karta yokoak, eta pilotak, oneski libertitzeko  
Bainan bada beste yokorik guri changrin emaiteko  
Jainko Yauna dut othoizten beti pazientzia hartzeko.

Utzi behar izan ditugu gure sor-leku maiteak  
Burhasoak, haurrideak eta adichkideak,  
Zer bihotz-mina eman daikun orduko gure zortheak,  
Gure lagun maite heieri adio erraiteak!

Geroztik hemen izaiten dugun bada zerbait nahi-gabe  
Nik erran gabe badakizue orok dudarik gabe  
Larderiarik handienean, libertateaz ez yabe  
Pena horren medioz gare beraz hemen dohakabe.

Horren gatikan ez dugu behar lege hori kasatu  
Zeren bakhotchak bere aldian behar baitu phasatu  
Eta Frantzia maitea guk behar begiratu  
Bakhotchak gure egin ahalaz behar dugu sostengatu.

Beraz sobera gogoeta ez dezagun, ez, egin  
Penak yasan behar baitira pazientziarekin  
Libertatea ethorriko da bai segur demborarekin  
Eskual-herrian gozatzeko gure lagun maitekin.

Arte huntako penak ditugu ichilik sofrituko.  
Libertateko egun ederra guri ethorri artino.

Gero guziek elgarrekin erranen dugu oraino  
Biba! biba! zu, libertatia, gau et'egunak diraino!

Manech ETCHAMENDY, *Esterençuby-arra.*

---

LXXVI

EGUN BAT INF.RMERIAN

1

Erran duzun bezala, Gratien maitia,  
Eritasun bat badut, nik, hainitz handia,  
Mafrundi ta sukharra, bat eta bertzia  
Deus handirik ez dire, bainan gosetia!...

2

Gaitzak ninduenean ondikotz sesitu,  
Ene biziaz nuen bethikotz etsitu.  
Biharamunean nintzen ohean gelditu :  
Jeiki nintzenekotzat bazen apetitu !

3

Barraiatu zenean gaitzaren berria,  
Guziek nahi zuten ikusi eria.  
Batek erraiten zuen : « Trichte du begia ! »  
Bertze batek ondotik ; « Gaitza du handia ! »

4

Eriak, mement'hartan, zer zuen pentsatzen,  
Adiskide maitea, ez dautzut erraiten.  
Gaitza haren baitarik oraino urrun zen,  
Ezen, pausatu nahiz, gelditua nintzen.

5

Jeiki eta gan behar infirmeriara  
Bainan han sartzekotzat behar zen papera.  
Eman zarotanean Leutrek afera,  
Joan nintzen berehala erien athera.

6

Athea ideki 'ta, nik zer dut ikusten?  
Boltichur bat, lasterkä, ni ganat heldu zen :  
« Halto! adiskidea, ez duzu aditzen?  
« Pasaportarik gabe ez da hemen sartzen. »

7

Nik orduan sakelan sartzen dut eskua  
Eta atheratzen dut paper galdetua,  
Erraiten dudalarik : « Oi mila debrua!  
« Nungo presondegian othe naiz sarthua? »

8

Boltichura heldu da kadira batekin  
Eta erraten darot : « Jar zaite hor, Pattin. »  
Nik aldiz erreputa : « Milesker Kattalin;  
« Othoi, laster zatozkit, gosariarekin! »

9

Oren baten buruan. horra Boltichura :  
« Zer nahi duzu, Pattin, tizana ala ura?  
— « Zoazkit hortik, Kattalin, ez naiz jostagura;  
« Emazu berehala oilasko bat sura. »

10

Goiza pasatu eta, ethorri eguerdi,  
Bainan ene oilaskoa ez baitzen ageri!...  
Orduan erraiten diot ene buruari :  
Sendo daitakeena ez dadila eri!

Eguerdi pasatu 'ta, oren batarekin,  
Heldu da Boltichura arroltze batekin,  
Erraiten dautalarik : « Har zazu hau, Pattin,  
« Ongi egonen zare gaurko, zu, horrekin. »

12

« — Zoin oilarrek errun du arroltze eder hau  
« Irets netzazke aise holako hamalau !  
« Jadanik pasatu tut aski arin bi gau.  
« Heldu den gauarentzat marka ona duk hau ! »

13

Eguna pasatu 'ta, heldu da arratsa;  
Gau hartako ametsentzat ez nintzen ni lotsa.  
Etzen laster ethorribiharamun goiza :  
Beheiti jautsi nintzen sendaturik ontsa.

14

Jadanik pasatu tut presondegi frango,  
Bainan orotan bazen zerbait asetzeko.  
Goitikoan azkar eta behitikoan flako :  
Ez nauk ni gehiago infirmeriarako !...

ELISSAMBURU.

---

LXXXVII

GEZURRA ETA EGIA

AIREA : *Iruten hari nuzu*

1

Oraiko demboretan, andere egia  
Eri baten itchuran, ilhunik begia.  
Huna nondik heldu den (*berriz*) hunen gaitz  
Gezurrak irabazi dioke hauzia. (guzia :

2

Sasoin gaichtoa, eta guziz aro tcharra,  
Kampoan utzi dute andere chaharra.  
Hotzak aurdiak dezake (*berriaz*) laster hil gogorra.  
Ez badu hatzemaiten nombeiko leihorra.

3

Bet-betan emazte bat hor agertzen zaio!  
Itchuraz eder, bainan gezurra dario.  
Aberatsa omen da (*berriaz*) berak hala dio.  
Ageriko da sarri zer duken balio.

4

Egun on, anderea, du hunek erraiten.  
Bakharrik, lekhu huntan, zer dazu egiten?  
Hark garbiki egia (*berriaz*) dio ihardesten:  
Hormatua nagola ez duzu ikhusten!

5

Galdegiten diotet hor dohazineri:  
Othoi, eman dezaten atherbe bat niri.  
Kasurik egin gabe (*berriaz*) ene galdeari,  
Lotzen dire ikharan oro ihesari.

6

Zorigaitzez! derasa bertzeak faltxorik,  
Zure hitzaren nehortz ez gutiziari.  
Ni baino lehen igo (*berriaz*) sorthu zarelarik,  
Ni bezala munluan etzaule jarririk.

7

Oro izitzen tutzu, nehor ~~ezin~~ mintza.  
Philda tchar horiekin zertako zabiltza?  
Etzare ez abila (*berriaz*), huna azken hitza:  
Dezagun elgarrekin mundua zerbitza.

8

Zato enekin, biak ibiliko gare,  
Ene kaparen pean berotuko zare.  
Orotan ikhusiak (*berriz*) bi ahizpen pare,  
Ez duzu deus galduko enekin zuk ere.

9

Hola, gure artean, gezurra mintzatu.  
Bere solas ederrez gaitu enganatu  
Gezurraren gainean (*berriz*) bada zer kondatu.  
Azkenekotz behar du mundua hondatu!

10

Egia dugun maitha bethi bihotz onez,  
Zerurat baiterama bide chuchenenez,  
Gezurrak ifernurat (*berriz*) orhoit hango penez,  
Han gezurraren gatik sofritzen dutenez.

ARGIBIDE.

---

## LXXVIII

### CHORI KAIOLATIK IHES GOAN DENA

AIREA : *Soldadoaren paga bi sos eguneko.*

Kaiolan nintzenean, maiz nindagon triste,  
Kampoko lagunetan bainuen sinheste,  
Libretasuna ona zela nuen uste

Orai arte,

Amets, amets zoroa! hik egin nauk kalte.

Banuen zertarik jan, bai eta zer edan,  
Deusen eskasik etzen enetzat kaiolan.

Bainan guzien gatik, nintzen errenkuran,  
Banuen lan,

Aski zabalik ezin arterik atzeman.

Ene arthatzailea fidaturik nitan,  
Athea idekirik behin utzi zautan,  
Nahi nuena egin orduan ni hautan,

Lorietan,

Lagunetara laster goan nintzen arietan.

Lehen ni usatua lo trankil egiten.

Orai huna berri bat zer dudan aditzen,

Gau-ihizi batzuek direla ibiltzen,

Chori biltzen,

Aztaparren urtean dituztela hiltzen.

Gauaz beldur bizian, egunaz ikharan,  
Non-nahi irriskatzen sartzea segadan,  
Holakorik ez zaitan burura kaiolan,

Nintzenean;

Zoin gaizkiago naizen hobeki ustean.

Hegalttoak oraino ditut laburregi,

Nik nola ihes egin belatch gaichoeri?

Bertzeak bezain airos ez naiteke segi,

Laguneri,

Zer lana eman dudan ene buruari?

Ene hegalak aski luzatu orduko,

Uda akhabaturik negua hasiko;

Berriz uda lehenik ez da ethorriko,

Enetako,

Izotz, elhur, hormetan, nola naiz biziko?

Gaztea nahi bada egon segurean,  
Ez dadiela eror nik egin hutsean;  
Bainan asmu hoberik harturik buruan,  
    Deskantsuan  
Egon bedi kaiola ongi zerratuan.

DARROUPE HARLUZ.

---

LXXIX

**ARRAÍNA ETA BERE UMEAK**

AIREA : *Adios Guetharia, adios Bidarte.*

1

Etsemplu hau hartu dut Parisko hirian  
Gerthatua omen da hango ur nausian  
Arrain bat han bizi zen ur haren erdian  
Umeak gal beldurrez ikhara handian.

2

Beldurra erakusten zioten erranez :  
Mesfida zaizte, haurrak, ur hunen bazterrez.  
Bazterrak oro dira betheak etsaiez,  
Arrantzaleen asmuz, orobat belatchez.

3

Ama ona zaioten horrela mintzatu,  
Bainan gazte ergel hek doidoia aditu,  
Azkenekotz amaren erranez burlatu  
Gero, bethi bezala, irri-trufak sartu.

4

Aphirilan mendiak elhurrak churitzen,  
Haizeak urtzen ditu eta jautsarazten

Urak handitzen dire, gero atheratzen  
Bazter guzietarat lurrez-lur he latzen.

5

Oihuka hasten zaizko amari umeak :  
Zer du balio, ama, zer zure elheak ?  
Jin bite amuekin, jin arrantzaleak,  
Gu gare gu itsaso huntan erregeak.

6

Beha zazu ureri, beha zeruari,  
Arbolak gehiago ez dire ageri.  
Guk diogu manatzen orai munduari,  
Uholde jeneral bat dela du iduri.

7

Amak du ihardesten zuhurtziarekin :  
Ez zaitezuela josta, haurrak, urarekin.  
Urtheak ditu bizi naizela hunekin  
Ezagutzen dut bere gora-beherekin.

8

Sinhets beraz, sinhets ni, chuhur baduzue.  
Dembora gutiz ura sartuko zaitzue.  
Bazterreraat joanez irrisku duzue,  
Erditik, zolaz-zola, segi nezazue.

9

Bah ! diote khechurik ergel hek amari :  
Lehengo errepika bera duzu hori.  
Adio, bagoazi, ez erran deus guri,  
Bisita egiterat lekhu berriari.

10

Gure burugabeak hola mintzaturik  
Athera dire oro uraren zolatik.

8

Barraiatuak behin amaren ondotik.  
Ez dagozi ez berriz alderat bildurik.

11

Huna zer zitzaioten orduan gerthatu,  
Hek uste baino lehen ur guziak sartu.  
Eta nahi bezala, etsaiak hek hartu.  
Bizirik hala hala zartainan friitu.

13

Haurrak, etsemplu hori dezagun balia :  
Ergel hekien gisa, othoi, ez abia.  
Aita-amen menean progotcha bizia,  
Aita-amen aldean zeruko loria!

PARISTARRA.

---

LXXX

**KARROSADUN BATI**

1

Adiskidea, egia maite baduzu,  
Atentzionez, othoi, entzun nezazu.  
Sinhetsi nahi banauzu,  
Hobeki muntatu behauzu,  
Irabazi gehiago atherako baituzu.

2

Ez dut ikusten nihon zu bezalakorik,  
Bazter orotan zare famaturik,  
Gauza bat falta bakharrik.  
Zaldi on bat behar nombeitik,  
Bertze tresna zahar hori igortzeko etchetik

3

Ibili gabe bidean uda ala negu,  
Baluke horrek oihanean emplegu,  
Larrerat joan behar badu,  
Ferrak khentzen ahal diozkagu,  
Gaztetuko da menturaz libro uzten badugu.

4

Nahi baduzu entzun garbiki egia,  
Hartu behauzu zaldi gazte berria.  
Zahar huni goardia,  
Fini baitu bere aldia,  
Emozu lehen bai lehen erretreta handia.

5

Bihar berean kurrī, ikhūs merkatua,  
Ez egon zaldi tresna horri lotua.  
Moltsatik larga dirua,  
Egin ontsa zure tratua,  
Behingoz izan zaitezen gosturat muntatua.

6

Adiskidea, bethi zure zerbitzari,  
Atentzioñe nere azken hitzari :  
Loth zaite zaldi onari  
Eta estal karrosa hori,  
Fortuna jarraikiko da zure muntadurari.

2

Segi nezazu, nik erran bezala planta,  
Entzunen duzu laudoriozko kanta,  
Ah! zer gizon galanta!  
Zer muntadura charmanta!  
Oihu eginen dautzute : biba, biba, erranta.

— Gogoan orai kopla haukien morala,  
Egin nio bai zuk diozun bezala,  
Balinbanu ahala,  
Bainan eskas dut metala,  
Lagundu nahi nauenak, othoi eman dezala.

---

LXXXI

**AITA ZUHURRA ETA HIRUR SEMEAK**

AIREA : *Lo-lo ene maitea*

Aita batek zituen hirur seme behin,  
Hek ttipiak zireno bazuen atsegin ;  
Gero eman diote haimbertze bihotz-min,  
Zituen ongi guzien jabe nahiz egin.

Semeak mintzo ziren hirurak bildurik :  
Aita zahartuz geroz ez da zentzu onik :  
Landak eta mozkinak guretzat utzirik,  
Hobe duzu bakean gogorat egonik.

Zerbait behar duzuen errazue haurrak :  
Janhari onak ala soineko ederrak ?  
Orai nik zuei utziz zuzenez indarrak,  
Nork dauzkit chukhaturen ondoko nigarrak

— Aita zuk badakizu, hea gaichto garen,  
Zerengatik zinduke nigarra eginen ;  
Ait' amentzat umeak on izanen diren,  
Menean jarri arte ez dute jakinen.

— Baratze gibeleko zarika chumean,  
Ohantzettobat baduk laur chorri barnean ;  
To, hek eman ditzagun kajola batean,  
Aita'amek haz ditzaten handitu artean  
Beha zazue orai kajola hortarik.

Nola dauden umeak mokoak zabalik ;  
Ait'amak bazkarekin aldean jadanik ;  
Burhasoak haurrentzat hola egiten dik.

Kume hek hegaldaka bazohazkonean,  
Kajolatik zituen igorri airean ;  
Ait'amak hatzemanik artetto batean,  
Eman zituen biak kajola berean.

— Ikhusi dituzue umen arthatzen,  
Bi zaharrek, laur gazte kajolan bazkatzen ;  
Baldin ait'amak umek badituzte hazten !  
**Nik** ere onthasuna dautzuet emaiten.

Semeak hasi ziren kheinuka elgarri :  
Etchalde joriaren jabe gaituk sarri ; —  
Ordean hazkurririk gaztek ez ekarri :  
Zaharrak han zagoen goseak hilgarri !

Ala baita samurra ait'amen bihotza !  
**Aldiz**, umerena da gogor eta hotza !  
Hargatik niagok ni bilhuztera lotsa,  
Beude ene eskuko landak eta moltsa !

Zembat dire munduan goizik bilhuziak  
Laidoen jasaiteko menerat jautsiak,  
Eskuak baitituzte haurrerri utziak  
Ongi eginen ordain gaizki ikhusiak.

Pierre DIBARRART, *Baigorrykoa*.

LXXXII

**GALERNA BAT MENDIAN**

AIREA : *Lurraren pean, etc.*

Arratsalde erditan zerua hasi zen den <sup>1</sup> goibeltzen ;  
Haize borthitz bat gero bortuan laster zen eman  
[altchatzen,  
Mendi hegalak oro zituen errabietan zafratzen,  
Harripegna zahar handieri azkarki zela oldartzen.

2

Othe loredunen kachkoetan chorittoak pausatuak  
Alde guzietara zagozkan mendealak harrotuak,  
Arranoak aldiz urrunetik heldu ziren izituak :  
Heyen hegal burrumbaz zirela dardarikatzen bor-

[tuak.]

3

Mendiaren hegier behera artzain bat heldu zen  
[huchtuz,  
Aintzinean arthalde eder bat laster handitan hiatuz,  
Bainan ardiak multzo batean beren buruak gordatuz,  
Marrakaz zagozin geldituak batak bertzea berotuz.

4

Bat batean du ihurtzuriak hedoietan karraskatzen,  
Mendia da ikharan emaiten baliz bezala urratzen,  
Chimichtak chimichtaren gainean zerua du arraila-  
[tzen.]

Eremu ilhunak dituela bultagno batez erratzen.

5

Uri-uharrak dira erortzen harrabots azkarrenetan ;  
Ur errekkak gorri-beltzatuak doazi mendi paretan :  
Arranoak aldiz uzkurtuak beren hegazkin handietan,  
Bi begiak hetsirik dagozi harripegna ziloetan.

6

Luzaz ongi zafratu ondoan ikharan zagon bortua  
Eztitzen aphur bat hasi zuen haizeak bere huchtua ;  
Uria da emeki emeki hedoietan athertua,  
Zeru goibelduan iguzkia huna nun den agertua.

7

Orduan berean arranoak oro dira iratzartu  
Eta harri ilhunen gainean ezti eztia chutitu ;  
Beren hegaldustiak dituzte harrabotsekin zafratu  
Eta karranka handitan dira zero gainerat airatu.

8

Chuchen eta gora badoazi hegaldatuz iguzkira,  
Haren inharreri hurbildanik agur baten erraitera;  
Begiak argiz erre ondoan dira itzu!tzen mendira,  
Gorachago berriz altchatzeko beren bultaren hartzera.

9

**Arzainen etcholek iguzkira orai zuten disdiratzen;**  
**Sorhopilan aldiz ihitza zen mila suz zilharreztatzen;**  
**Arthaldeak mendi mazeletan ikhus zitezken alha-**  
... [tzen.  
**Anhartean galerna zen urrun burrumbaka barrea-**  
[tzen.

J. BARBIER.

LXXXIII

**MUTHIL ZAHAR BAT BERE MAHASTIAN**

AIREA : *Adio, izar ederra! Adio, izarra!*

Aitak eman zerautan zerurat juaitean

Enetzat mahastia hartzeko lanean;

Artha nezala,

Aitak bezala

Haintzur eta jorra,

Laguntzat hor nucla... *sotoko ophorra.*

Etche churi ttipi bat badut mahastian.

Sagar, udare, phiko, mertchiken artian,

Etch'aitzinean,'

Loren erdian,

Baratze alhorra,

Dutchuluaren pean... *sotoko ophorra.*

Mahastian choriek goiz dute kantatzen,

Orduan bozkarioz lanari naiz lotzen;

Gero zait hasten

Bihotza hozten

Agortzen zintzurra,

Laster dut eskuratzen... *sotoko ophorra.*

Ez dut hiritar gisan gosari ttikia :

Bichkotchatto batekin edari bichia;

Nik dut ogia

Achal gorria,

Bai gasna gogorra.

Eti arno charitik... *sotoko ophorra.*

Neguan ez da deusik eder mahastian,  
Aldachketan molkoak agertu artian,  
Ikhuisiz huntan,  
Osto artean,  
Larritzen pikorra,  
Nola ahantz dezaket... *sotoko ophorra.*  
Igandetan debotki meza dut entzuten  
Gero lagun onekin plazetan jostatzen  
Han dut aditzen  
Nitaz erraiten :  
« Zer muthil gothorra !  
« Ez ahal dik hastio. . » *sotoko ophorra.* »  
Gorphutza baitut sano, arpegia gorri  
Hortako dute nitaz zerbait erran nahi,  
Bainan ez naiz ni  
Nihoiz ibili  
Oraino mochkorra,  
Izanagatik maithe..., *sotoko ophorra.*  
Badut moltsa luzebat urhez hampatua,  
Hal'ere ezkontzcko lotsaz gelditua,  
Beldur bainintzen  
Gerta zadien  
Andrea mokorra,  
Eta hauts ostikoka... *sotoko ophorra..*  
Ene gazte lagunak ezkondu direnak,  
Haurrez betheak dire orai gehienak ;  
Balute ere  
Bertze hainbertze,  
Eznaiz jeloskorra :  
Haur hainitz bezain on dut. . *sotoko ophorra.*

Herriko zahar batzuk sotorat ethorriz  
Han idukitzen naute lehertua irriz.

Konkorrek kanta,  
Mainguek dantza,  
Oihuka elkhorra...

Biba! zaharrak eta... *sotoho ophorra*.

Burlaka hasten baita artzaina menditik,  
Zaharrek errepostu mahasti gainetik :

To edantzak hik  
Chirripakotik  
Gibel aldez gora

Guk husteko dembora... *sotoko ophorra*.

Ophor hori ez baitzen andrentzat egina,  
Hekier dut eskaintzen gathelutto bana ;

Hastio naute  
Erraiten dute :  
Donado zingorra!

Chehaturen ahal zaik... *sotoko ophorra*.

Bertsu hauk egitean iphar-gochoa zen,  
Sotoan hari nintzen arnoen aldatzen ;

Donado hemen  
Zein ongi naizen,  
Egin dut aithorra,

Tente chutik aldean... *sotoko ophorra*.

PIERRE DIBARRART,  
*Baigorrikoa.*

---

LXXXIV

**IDUZKI DENEAN, ZOIN EDER DEN ITZALA...**

1

Iduzki denean, zoin eder den itzala,  
Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala;  
Egiten duzula  
Mila disimula  
Ignorant zirela,  
Erraiten duzula  
Bertzetarik naizela,  
Falsuki mintzo zira.

2

Zazpi urthez bethi, yarreiki zait ondotik,  
Erraiten zaundala, ez dut bertze maiterik;  
Hitz hortan fidaturik  
Nago trompaturik  
Gaichoa trichterik,  
Ez dut eiten lorik.  
Ez yan edan onik,  
Maitia, zure gatik.

3

Oy! ene maitia, nik ere zure gatik,  
Pasatzen dizut nik, zombeit sabeleko min;  
Ezkontzekotz zurekin  
Samur aita amekin,  
Behar nindeite yin,  
Ez dakit zer egin  
Ez eta nola yin,  
Ni neure etchekoekin.

Oy! ene maitia, nun duzu izpirituya,  
Fediaren yabe, aita deraukazuya;

Atchikazu fedia  
Maitha berthutia  
Libra kontzientzia,  
Munduko bizia  
Labur da maitia,  
Ez zaitela kambia.

---

LXXXV

**MONTEVIDEOON 1847<sup>an</sup> ARRIBATU ZEN  
ESKUALDUN BAT**

[rantzi,

Dotzena erdi bat bertsu berri, Eskual herrier go-  
Kopiaturik igortzen daizkoteneadichkide Barnetche-i  
Montevideo-ko alderdian gu nola giren bizi,  
Oro egiak deklaratzen tut, nahi duenak sinhetsi.

2

Mila zortzi ehun eta berrogoi eta zazpian,  
Gu nola arribatu ginen, Montevideo-ko herrian,  
Uste ginuen sartzen ginela, plazer guzien erdian,  
Hobe ginduke egon bagine, zangoak hautsirik Fran-

[tzian.

3

Zombat ait' amen seme maite eta orobat alaba,  
Bihotz onez itzul litazke, berriz alderdi hartara,  
Egiazki mintza nadien gauza hori hala da,  
Hemen bizi ontsa eginez, deus ez ditake aldara.

4

Oro bat aita familiakoak beren penen ihesi,  
Montevideo-rat yiten dira, nahiz zerbait irabazi ;  
Holako frango ez othe dugu Eskual herrian ikhusi,  
Yende onek beharko tuzte, heyen familiak hazi.

5

Ez du balio hunat yitia libratzeko penatik,  
Eta hori erranen dut, yende onak, zer gatik,  
Nehor ez da aberasten bere esku lanetik,  
Holako guti atheratuko da, sekulan Montevideo-tik.

6

Egun bada bihar ez da hemengo irabazia,  
Hala ere kontent konserbatzen badu bere bizia,  
Hemengo afera phentsatu gabe noiz nahi nahasia ;  
Erreglamendu hobagoan, gidatua da Frantzia.

7

Erran komuna den bezela, urruneko eltzea urhez,  
Hala ere kontent harrapatziaz hara onduan betherik  
[lurrez,

Yende onak ez naiz mintzo hotan batere gezurrez,  
Nihaurek frogatut, aurthen dembora la-  
8 [burrez.

Oro bat fama handietan, zen demboraz California,  
Harriaren plazan zutela orotan urpe gorria ;  
Nik bezala balakite zombeitek hango berria :  
Hargin zerbitzun ari dela, ikhusi dut notaria.

9

Uste nuke lekhu beretan, konde markesak badiren,  
Orai diren lekhuan baino hobeki baitzauden lehen ;  
Goraintzi igorri diote herriko adichkider,  
Taulazko hotel batian, bizi direla koziner.

# AURKHIBIDEA

Plaman

1. Guernikako Arbola.....	3
2. Nere Maitarentzat.....	5
3. Kontchechi .....	6
4. Eskualduna.....	9
5. Inchauspeko alaba.....	12
6. Charmagarria zera.....	13
7. Agur nere herriari.....	14
8. Sérénade de Belsunce .....	16
9. Maite zaitut .....	16
10. Ikhazkin mendian.....	18
11. Ama haurraren seaskan loharkatzen...	20
12. Khilo egilearen kantuak.....	21
13. Libertatearen amodioa.....	23
14. Choriñoa kaiolan.....	25
15. Deserturra .....	27
16. Muthil-zaharra .....	29
17. Nere etchea.....	30
18. La Violette.....	33
19. Kaiku .....	35
20. Lurraren pean sar nindeiteke.....	35
21. Lili bat ikhusi dut.....	37
22. Mendian zoin den eder.....	37
23. Donostiako iru damatcho .....	38
24. Beltzuntze Bizkundia.....	39
25. Iruten hari nuzu .....	40
26. Nere maite pollita.....	41
27. Amodiozko solasak .....	42
28. Adios, izar ederra.....	43
29. Adios, ene maitia .....	44
30. Choriñuak kaiolan .....	44
31. Soldadogoatik Eskual-herrirat itzultzen denaren kantoreak.....	45

## Plaman

32. Dantzaria.....	47
33. Okhertuak bere okhertzaileari koplak,	49
34. Gazte hiltzera dohana.....	50
35. Arranuak borthietan .....	52
36. Chorittua nouat houa.....	54
37. Lore ederra .....	55
38. Gitarra joilea.....	56
39. Charmagarria.....	57
40. Herriko besta biharamuna.....	57
41. Amodio eskasa.....	60
42. Ikhazketako mandoa.....	61
43. Bidarraitarra.....	66
44. Adios Euskal-herria !.....	68
45. Atharratze jaureguia.....	68
46. Dama gazte bat adoratzeko.....	70
47. Zaldi baten bizitza.....	72
48. Ezpeleta herrian.....	74
49. Les bons Apôtres.....	76
50. Artzaingoa.....	79
51. Uso churia, errazu.....	81
52. Etcheko chokoa.....	81
53. Emazte edalea.....	83
54. Maitia nun zira ?.....	85
55. Aingeru bati.....	86
56. Eskualdun Ameriketarat dohana.....	87
57. Santsin .....	88
58. Oraiko neskatcha batzu .....	91
59. Umek burhasoeri urthe on eta ohore..	93
60. Lamentations d'un Basque à Montevideo	95
61. Senhar-Emazteak .....	98
62. Andriak senharrari koplak.....	100
63. Frantzia eta Ruzia <i>edo Bi Arrano hirur Beleri</i> .....	102
64. Ohore Laborantzari.....	104
65. Oraiko neskatchak .....	106
66. Sarako Ihesliarren kantuak.....	107
67. Halaere .....	109
68. Nausia, Muthila eta Erbia.....	110

69. Aingerua eta Haurra . . . . .	112
70. Oiloa eta Mirua . . . . .	113
71. Eria ezagutzaz bethea errechinoleta-rentzat . . . . .	115
72. Ene charamelaren auhen minak . . . . .	116
73. Iratiko artzaina . . . . .	119
74. Emazteki mozkorra . . . . .	122
75. Soldado laguneri . . . . .	124
76. Egun bat infirmerian . . . . .	126
77. Gezurra eta egia . . . . .	128
78. Chori kaiolatik ihes goan dena . . . . .	130
79. Arraina eta bere umeak . . . . .	132
80. Karrosadun bati . . . . .	134
81. Aita zuhurra eta hirur semeak . . . . .	136
82. Galerna bat mendian . . . . .	138
83. Muthil zahar bat bere mahastian . . . . .	140
84. Iduzki denean, zoin eder den itzala . . . . .	143
85. Montevideon 1817 <sup>an</sup> arribatu zen Eskual-dun bat . . . . .	141

